ikus pegi Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

urria 2020

Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa: politika publikoak diseinatzeko tresna bat

BASQUE INCLUSION INTEGRATION INDEX-BI3

José Antonio Oleaga Páramo



CIP. Biblioteca Universitaria

Oleaga Páramo, José Antonio

Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa [Recurso electrónico]: politika publikoak diseinatzeko tresna bat, Basque Inclusion Integration Index-BI3 /José Antonio Oleaga Páramo. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2020] . –1 recurso en línea : PDF (82 p.)

Incluye referencias bibliográficas y anexos.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-258-1

1. Inmigrantes – Integración – País Vasco. 2. Integración social – País Vasco. 3. Encuestas sociales – País Vasco. 4. Estadística – País Vasco.

(0.034)314.7(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Argitalpenaren urtea eta lekua:	2020, Bilbo
Argitaratzailea:	Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Diseinua eta maketazioa:	Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia
Dokumentazioa:	Antonio Gómez, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia
Itzulpena:	Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.
Azaleko argazkia:	Orlando Imperatore, used under CC BY-NC-SA 2.0 / Cropped from original
ISBN:	978-84-1319-258-1

AURKIBIDEA

Laburpena 5

1. Sarrera 7

2. Integrazio eta inklusio sozialak: ereduak 11

2.1. Kontzeptuak 11

2.2. Integrazio sozialaren prozesua azaltzen duten ereduak edo teoriak. 13

3. Integrazioaren neurketa, dimentsioak eta indize sintetikoak 17

3.1. Integrazioaren dimentsioak 18

3.2. Indize sintetikoen aurrekari batzuk 19

3.3. BI3 indize sintetikoa: atariko dimentsioak, aldagaiak, faktoreak 21

4. Emaitzak 27

4.1. Indize sintetikoa: *Basque Inclusion Integration Index* BI3 27

4.2. Integrazio asimetrikoa: aldagai iragarleak. 30

4.3. Integrazio sozialaren fase desberdinetan dauden atzerritar jatorriko biztanleen tipologiak. 39

4.4. Integrazioaren asimetria dimentsioetan 52

5. Ondorioak 67

6. Bibliografia 71

Eranskinak 77

Laburpena

Eusko Jaurlaritzak estatistika-lan bat egiten du aldian-aldian, atzerritar jatorriko euskal biztanleei buruzko informazio garrantzitsua biltzeko. Azterketa hori Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak egiten du, eta EABI du izena (Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta). Orain arte, ikerketa berezi hori (bakarra da Espainian) hiru aldiz egin da: 2010., 2014. eta 2018. urteetan. Duela gutxi argitaratu da azkenaren deskribapen-txosten bat, taula orokorrekin batera, eta mikrodatuen fitxategia eskuragarri dago 2020ko apiriletik aurrera.

Datuek adierazten dutenez, integrazio- eta inklusio-egoera (hezkuntzarako sarbidea, lana, bizi-baldintza duinak, parte-hartze soziala eta politikoa, etab.) ez da berdina kolektibo eta pertsona guztietan. Gizarte-ekitate handiagoa lortzera bideratutako politika publikoak egiteko, egoera desberdinean dauden pertsonen tipologiak aztertuko eta segmentatuko dituen tresna bat behar dugu.

Asmo horrekin sortu da Inklusioaren eta Integrazioaren Indize Sintetikoa egiteko ideia, atzerritar jatorriko pertsonek 2010, 2014 eta 2018ko datu-baseetan emandako datuetan oinarrituta, aipatu dugun bezala. Zehazki, lau dimentsio kontzeptualen (gizarte-ongizatea, hezkuntza, lan-merkatua eta herritartasuna) aldagai operatiboak sartu ditugu ereduan.

Indizea lortzeko, osagai nagusien bigarren mailako faktore-analisiaren metodologia batekin lan egin dugu. Hau da, osagai nagusien lehen analisi bat aplikatu diogu hautatutako aldagai operatiboen multzoari; ondoren, beste faktore-analisi bat aplikatu diogu lehenengoan lortutako dimentsioen multzoari, dimentsio horiek haztatu eta indize sintetikoko azken puntuazioa lortu ahal izateko.

Jarraian, zenbait teknika aplikatu ditugu —sailkatzeko (klusterrak, K-batezbestekoak) eta segmentatzeko (AID) teknikak, hain zuzen— kolektiboak segmen-

tatzeko eta bereizteko asmoz, eta bereizi egin dugu lortutako dimentsioetan inklusio onena dutenen eta, azkarrago aurrera egiteko, politika publikoen laguntza behar dezaketenen artean.

Erabilitako metodologia aplikatu izanari esker, aipatutako eremuetan inklusio sozial txikiena lortu duten pertsonen azpimultzoen edo kolektiboen hautematean sakondu ahal izan dugu. Bestalde, indizea garatzeak aukera eman digu agerian uzteko desoreka handia dagoela atzerritar jatorriko biztanleen artean, eta inklusio sozialaren zenbait arazoren zantzu argiak erakutsi ditu. Izan ere, indizeari esker, pertsonen inklusioa mailaka dezakegu, eta ez banakoena soilik, baita zenbait kolektiborena ere.

Sailkatzeko eta segmentatzeko teknikek aukera eman digute inklusio sozialean barne-egoera homogeneoak dituzten gizabanakoen azpimultzoak lortzeko (talde barruko homogeneotasuna); banakoen azpimultzo horien barne-egoera, bestalde, ez da beste batzuena bezalakoa (taldeen arteko heterogeneotasuna). Teknika horiei esker, gainera, tipologiak ezartzeaz gain, kolektiboen ezaugarriak ere zehaztu ditugu, aldagai soziodemografikoen eta sozioekonomikoen arabera.

Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoa garatzeak atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboen inklusio eta integrazio sozialaren prozesuei buruzko informazio zehatzagoa lortzeko aukera ematen du; hala, ezinbesteko tresna bihurtzen da ekintza politikoaren plangintza eta orientazioa hobetzeko, hari esker *ad hoc* politika publikoak aplika baitaitezke laguntza gehien behar duten kolektiboen mesedetan, justizia sozial bidezkoa duen gizarte bat lortze aldera.

1 Sarrera

XXI. mendea garrantzi handiko aldaketa sozialekin hasi da, eta erronka handiei egin behar diegu aurre gaur egun eta datozen urteetan. Hauek dira erronka horietako batzuk: bizitzako eremu guztiei, lan-merkatuari bereziki, eragiten dieten etengabeko garapen teknologikoak, lanpostuak eraldatzen eta gure arreta etengabe eskatzen baitute, prestakuntza- eta birziklatze-premia berriei erantzuteko; genero-ikuspegitik berdintasunean oinarritzen den gizarte-eredu batean aurrera egiteko gero eta eskaera handiagoa; datorkigun klima-aldaketa larria, dagoeneko gure artean dagoena, berarekin dakartzan ondorio meteorologiko, urbanistiko, ekonomiko eta sozialekin; Mendebaldeko gizarteen zahartze progresiboa eta mendekotasun-politiken kudeaketarekin lotuta planteatzen diren erronkak; teknologia berrien aurrerapen geldiezina harreman eta sare sozialen esparruan, eta horrek dakartzan ondorioak iritziaren sorkuntzan, masen manipulazioan, ospe sozialean eta abarretan.

Baina, azken urteotan, garrantzia hartzen ari den inoiz entzun gabeko prozesu soziala ere gertatzen ari da: pertsonen mugikortasuna eta migrazio-prozesuak. Eta inoiz ez dela entzun diogu gizateriaren historian sekula ez direlako gertatu neurri horretako pertsona-mugimenduak, eta hain arrazoi desberdinengatik (ekonomikoak, bizi-proiektuak, segurtasuna, beldurra, hondamendi naturalak, gerrak, mafiak, berotze globala, itsas mailaren igoera…).

Mugikortasuna ez da kontu berria, migrazio-prozesuak gure nortasunaren ezaugarri izan baitira Historiaurretik (*Australopithecus afarensis*, *Homo ergaster*, *Homo antecessor*, *Homo heidelbergensis*, *Homo neandertal*) gaur egunera arte (*Homo sapiens sapiens*). Baina bizi ditugun eta datozen hamarkadetan ikusiko ditugun migrazio-mugimenduen kalitateak eta kantitateak ez dute parekorik. Bestalde, harrigarria da gaur egungo munduko biztanleen % 3,5i (Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietako Sailaren arabera) eragiten dion fenomeno batek (271,6 milioi biztanle dira, guztira) hainbesteko arreta bereganatzea. Arrazoi

osoz iradoki zuen Joaquin Arangok, aditu aitortuak, gure planeta geldi dagoela esan daitekeela, munduko mugikortasunaz dugun irudiak bestela pentsatzera eramaten gaituen arren. Nolanahi ere, ezin da ahaztu nazioarteko migranteen kopurua ia 100 milioitan hazi dela azken hogei urteetan.

Gure ingurunea, Euskal Herria, ez dago migrazio-mugimenduetatik kanpo, eta euskal gizarteak duela hogei urtetik hona gure lurraldera beste jatorri batzuetako pertsonak iristen ikusi ditu pixkanaka: lehenik, eszeptizismoz; gero, ezin sinetsita eta egoeraren izaeraz gehiago jabetuta. Pertsona horietako batzuk lanera, bizi-proiektu iraunkor bat garatzera eta behin betiko geratzera etorri dira; beste batzuk, berriz, aldi baterako geratzeko, urte batzuk egon eta beren sorterrira itzultzeko asmoz.

Gizarte gisa izan dugun arrakastak (maila garrantzitsua eskubide eta betebeharretan oinarritutako gizarte-ongizatean), jaiotza-tasa baxuek eta biztanleriaren zahartze nabarmenak erakargarri egin gaituzte munduko alde guztietako pertsonentzat, eta etortzera animatu dira euskal lan-merkatuaren egituraren beharrak bultzatuta (Espainiakoak eta Europakoak ere bai, Mendebaldeko Europakoak, gutxienez); izan ere, euskal lan-merkatuak lanpostu hutsak betetzeko beharra du, lanbide eta gizarteko maila apalenetakoak, batez ere, baina ez soilik.

Gaur egun, ziurtasun osoz esan dezakegu immigrazioa egiturazko prozesua dela Euskadin. Hogei urte daramatzagu mundu osoko pertsonak jasotzen; izan ere, gure gizartea orekatu beharra dugu zenbait alderdi garrantzitsutan (demografia eta lan-arloa, esaterako), ezinbestean eragiten baitiote gure gizarte-ongizateko sistemaren iraunkortasunari.

Ez du ematen datozen urteetan migrazio-mugimenduen noranzkoa aldatuko denik. Aldaketa sakonak eta iraunkorrak gertatzen ari dira gure gizartean: euskal gizartea ez da inoiz izango XX. mendearen amaierakoa bezalakoa.

Gainera, giza mugikortasunak eta gaur egungo migrazio-mugimenduek dinamikotasun handia dutela ikusten ari gara: ez dira XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran gizarte beren barruan ikusi ahal izan genituen migrazioak (hau da, euskal gizartearen barruko landa-eremuen eta hirien arteko trukeak); ez dira XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan gertatu ziren gizarte artekoak (Espainiako landa-eremutik hiri industrialetara, gure lurraldera iritsitakoak, bereziki), ez eta Espainiako lan-merkatuan sobera zegoen eskulana Europako gune industrialetara joanarazten zuten nazioartekoak ere (Espainiako landa-eremutik Europako hiri nagusietara, Europako erdialdekoetara, batez ere).

Gaur egun, urte gutxian, immigrazio-prozesu tradizionalen (migrazio ekonomikoa) lekua beste migrazio mota batzuek hartu dute: hirugarren herrialdeetara joatea helburu duten migrazio-mugimenduek, asilo- eta babes-premia duten

oso migrazio-prozesu garrantzitsuek, adingabeen mugimendu gogorrek (bidaiderik gabeko adingabe atzerritar estigmatizatuak), adin-nagusitasunera iritsi berri diren migratzaileen adibide berriek (hain estigmatizatuta egon gabe, mespretxua jasotzen duten bidaiderik gabeko gazte atzerritarrak)… Eta horri guztiari gizarte askok kualifikazio handiko talentua eta immigrazioa erakartzeko duten interesa gehitu behar zaio, bai eta ikasleen mugikortasuna indartzeko egungo politikak ere; politika horiek unibertsitatearen esparruari eragiten diote, bereziki, baina industriara bideratutako lanbide-heziketari ere bai.

Migrazioen fenomenoaren konplexutasuna gero eta handiagoa da. Eta bereziki garrantzitsua da mugimendu horien kudeaketari erantzun egokia ematea, arreta berezia jarriz immigrazio-mugimenduei, edozein motatakoak direla ere, haiek izango baitira, azken finean, euskal gizartean eragin handiena izango dutenak. Aniztasuna kulturartekotasunaren ikuspegitik kudeatzeak sortzen dituen arazoak konpontzeko modua nolakoa, halakoa izango da gure gizartearen etorkizuneko arrakasta. Pertsona guztiei, edonon jaioak direla ere, inklusio eta integrazio sozialerako aukera ematen dieten gizarte-politikak egin behar ditugu, herritar gisa dituzten eskubideetan, tratu-berdintasunean eta diskriminaziorik ezean oinarritutako bizikidetza baketsua bermatuko duen kohesiorik handiena lortzeko.

Hogei urteko ikuspegiak agerian uzten du gure artean lan egitera, bizitzera eta bizi-proiektu bat garatzera etortzen diren beste jatorri batzuetako pertsona guztiek ez dutela erritmo bera inklusio eta integrazio sozialaren prozesuan. Batzuek berehala lortzen dute gainerako herrikideek herritar gisa duten estatusa. Alabaina, beste batzuei zailago egiten zaie prozesu horretan aurrera egitea. Xehetasun askok dute eragina: hizkuntzak, erlijioak, azalaren koloreak, generoak, adinak, prestakuntzak, administrazio-egoerak, sozialki eta politikoki *gogokoen* diren kolektiboetako kide izateak, kapital sozialak, jatorrizko herrialdeak, zoriak…

Garrantzitsua da prozesu horretan gehien sufritzen duten pertsonei eta taldeei buruzko informazio egokia izatea; hau da, oztopo gehien gainditu behar dituztenei, zailtasun objektibo eta subjektibo gehienei aurre egin behar izaten dietenei, arrisku handienean daudenei, babesgabeenei eta, laburbilduz, hauskorrenei eta zaurgarrienei buruzkoa. Eta hori hala da, aipatutako informazioa ezagututa soilik har ditzakegulako desberdintasunak murrizteko eta bidegabekeriak eragozteko neurriak politika publiko eta sozialetan.

Botere publikoek eta haien gizarte-politikek joan den mendeko eskola bateratuko andereño[1] saiatuen antzekoak izan behar dute, sentsibilitate berezia baitzuten emakume haiek beren ikasleetako inor atzean gera ez zedin. Hezkuntza-

[1] Aurora Oleaga Echeverria nire amabitxiari egin nahi diot omenaldia (40ko, 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan aritu zen andereño Bilboko Lorategi Hirian); dena dela, garai hartako irakasle guztiei zabaldu dakieke omenaldi hori.

erritmora egokitzen ziren eta erritmo horrekin jolas egiten zuten, ikasle argienei arreta eskaintzeko, jakina, baina baita zenbait gauza ulertzea gehien kostatzen zitzaienak atzean ez geratzeko ere.

Hala, Inklusioaren eta Integrazioaren Euskal Indizea (*Basque Inclusion Integration Index BI3*) zaurgarritasun-egoera berezian dauden pertsonen eta pertsonataldeen detekzioari buruzko informazio garrantzitsua emateko sortu da, haien premiei erantzungo dieten eta desberdintasun sozialak murriztuko dituzten gizarte-politikak abian jartzeko.

2 Integrazio eta inklusio sozialak: ereduak

Txosten honen helburua ez da gaiaren egoera errepasatzea. Halaber, ez dugu esparru teoriko bat garatu nahi, enegarren aldiz eta zehatz-mehatz aztertzeko integrazioaren kontzeptua definitzeko erabilitako terminologia eta bertako biztanleen nahiz etorkinen integrazio sozialaren prozesua deskribatzeko azalpen-ereduak.

Adierazi dugunez, gure helburua tresna bat eskaintzea da, integrazio sozialaren prozesuan zailtasun handienak dituzten eta, horren ondorioz, zaurgarritasun-egoera handienean dauden pertsonak eta/edo taldeak detektatzeko, pertsona horien egoeran oinarritu dadin EAEn bizi diren pertsona eta pertsona-talde guztien integrazio-prozesuko desbideratzeak zuzentzeko jardunbide politikoa.

Beraz, gure helbururako, nahikoa iruditzen zaigu labur azaltzea zer termino geure egin ditugun eta zer kontzeptu ezkutatzen diren termino horien atzean; horrekin batera, gure asmoa integrazio eta inklusio sozialaren prozesuen azalpen-eredu teoriko garrantzitsuenen berrikuspen labur bat egitea da.

Kontzeptuak

Bi termino erabiliko ditugu prozesu beraren bi zati izendatzeko: integrazioa eta inklusioa. Gure iritziz, ez dira sinonimoak, prozesu beraren bi zati bereizi-ri egiten baitiote erreferentzia; izan ere, *integrazio* terminoari beste testu batean (Godenau et al., 2014) ematen zitzaion adiera onartu dugu; testu horretan adierazten denez, egileen ikuspegi orokorra ideia honetan oinarritzen da: “etorkinak nonbait bizitzen jartzeak berekin dakarrela pertsona autoktonoekin elkarreragina izatea, harrera-gizartearen ohitura eta erakundeekiko gero eta hurbiltasun handiagoa izatea eta batzuei zein besteei eragiten dieten zenbait

gizarte-aldaketa gertatzea, nahiz eta, agian, ez guztiei neurri berean" (Schierup eta Alund, 1986).

Integrazio terminoaren aipamen ugariek hitz hori gehiegi erabilita utzi dutenez, autore batzuek *gizarteratze* edo *txertatze* terminoak erabiltzen dituzte sinonimo gisa, *integrazio* hitza ordezkatzeko. Hiruren artean, guk lehena nahiago dugu, gehiegi erabili bada ere.

Beste alde batetik, eta antzeko arrazoiengatik, ohikoa da *inklusio* terminoa erabiltzea *integrazio* erabili beharrean. Aurreko kasuan ez bezala (kasu hartan, bat gatoz egile askorekin sinonimoak direla esatean), uste dugu *inklusio* hitzak ñabardura desberdina duela eta migrazio-prozesuak aztertzen dituzten teoria asimilazionistetara hurbiltzen gaituela; izan ere, euskaraz, termino horrek *barnean hartzea*[2] esan nahi du; hau da, immigrazioak migratzaileak euskal gizartean sartzen dituela ulertzen da, eta aldez aurretik ezarritako mugetan egiten duela. Alabaina, integrazio terminoak "norbait edo zerbait osotasun baten parte egitea edo eginaraztea"[3] esan nahi du, eta lehen terminoan ez zegoen ñabardura bat eransten zaio definizio horretan. Integrazioak, gure ustez, adierazten du migratzaileek eta euskaldunek bat egiten dutela berdintasunean, osotasun bat eratzeko (hau da, euskal gizarte berria, askotarikoa eta kulturartekoa). Inklusioak, aldiz, aurretik zegoen gizarte batean, euskal gizartean, migratzaileak sartzeari egiten dio erreferentzia.

Horrenbestez, *integrazio* terminoaren gehiegizko erabilera kritikatu den arren, guk haren alde egiten jarraitzen dugu, beste termino batzuek ez bezala, ekintza demokratikoa adierazten baitu bere dinamikan, bai eta biztanle autoktonoek zein etorkinek elkarri eraginez parte hartzen duten prozesu dialektiko bat ere.

Dena dela, elementu errealista bat ere kontuan hartu nahi izan dugu gure indizea izendatzeko: onartzen dugu pertsona eta biztanleria etorkin atzerritarren integrazio soziala biztanle autoktonoek eta etorkinek partekatzen duten prozesu baten emaitza dela, eta biek parte hartzen dutela prozesu horretan, baina ahaztu gabe bi aldeen ekarpena ez dela simetrikoa, etorkinek ahalegin handiagoa egiten baitute beti.

Izan ere, biztanleria autoktonoak iritzi hori adierazten du gai horri buruz Ikuspegiren Barometroan[4] urtero galdetzen zaionean: hau da, pertsona guztiok,

[2] Hala definitzen du Euskaltzaindiaren Hiztegiak.

[3] Ikus Euskaltzaindiaren Hiztegia berriro ere.

[4] 2019ko Barometroan, bizikidetza-ereduez hitz egitean, honako hau jasotzen da: "Euskal biztanleriak badaki garrantzitsua dela pertsona guztien, etorkin eta bertako, ahalegin partekatua: % 76k uste du euskal gizartearen bizikidetzarako ahaleginak partekatua izan behar duela. Nolanahi ere, ahaleginak ez du simetrikoa izan behar, etorkinek egin behar baitute egokitzapen-ahaleginik handiena (67. or.). Gainera, ondorioetan (138. or.) honako hau adierazten da: Ikusi dugu, halaber, euskal biztanleriak nabarmentzen duela biztanleria etorkinak ahalegindu behar duela gure ohitura

bertako zein etorkin izan, ahalegindu behar dugula EAEn bizi garenok hobeto integratzeko, baina biztanle immigranteek egin behar dutela ahalegin handiena. Barometro horretan, *asimilazionismo leuna* edo *dekantazio bidezkoa* deitu diogu horri.

Beraz, Inklusioaren eta Integrazioaren Euskal Indizea izena aukeratu dugu azkenean.

Integrazio sozialaren prozesua azaltzen duten ereduak edo teoriak

Funtsean, hiru teoria edo eredu erabiltzen dira literatura klasikoan migrazio-ereduetako integrazioa deskribatzeko. Teoria orokorrak dira, eta, oro har, esan daiteke gaur egun gaindituta daudela, prozesua behar bezala ez baitute azaltzen. Asimilazionismoa, kulturaniztasuna eta kulturartekotasuna dira.

Labur esateko, integrazio sozialaren eredu asimilazionistak kanpotik datozen etorkinek beren jatorrizko ezagutza kultural, sozial eta psikosozial guztiari uko egitearen alde egiten du, helmugako gizartean nagusi diren kultura-jarraibideez ordezkatzeko. Kultura monolitiko bakarra dago (halakorik egon badaiteke, behintzat), eta horrek ez die lehiarako aukerarik uzten inportatutako beste jarraibide kultural batzuei.

Prozesu horretan, aditzera ematen da integrazioa norabide bakarrekoa dela, etorkinek helmugako kulturan murgildu behar dutela, eta pertsona eta/edo talde etorkinen arrakasta handiagoa izango dela kultura hori bere egitea eta ingurunea imitatzea lortzen duten neurrian, eta txikiagoa, berriz, lortzen ez duten heinean.

Eredu asimilazionistaren alternatiba bat da kulturaniztasuna oinarri duena da. Ikuspegi horrek ez die eskatzen etorkinei beren jatorrizko kulturari uko egiteko; aitzitik, kultura hari eusteko aukera ematen die, baina, betiere, ez badute lehiatzen helmugako gizarteko kulturarekin edo haren jokamolde ugariekin, eta ez badituzte arriskuan jartzen. Kontua kultura guztiak elkarrekin bizi ahal izatea da, baina elkarreraginik gabe. Jakina, nagusitasuna harrera-gizartearen kulturari dagokio.

---

eta tradizioetara egokitzeko, nahiz eta kontuan hartzen den integrazio-prozesuek biztanleria etorkinaren eta autoktonoaren ahalegin partekatua eskatzen dutela. Bizikidetza eredu hori ***dekantazio bidezko asimilazionista*** dela esan dezakegu".

Kasu honetan, eredu asimilazionistan bezala, onartutzat ematen da helmugako edo harrerako gizartearen kulturari ez diotela eragiten etorkinen edo etorkintaldeen kulturek. Egia esan, ez da oso errealista pentsatzea beste jatorri batzuetako etorkinen etorrerak ez duela eragingo helmugako gizartearen kulturan, eta ez duela hura aldatuko.

Kulturaniztasuna oinarri duen ikuspegiaren arabera, integrazio sozialaren prozesua arrakastatsua izango da, baldin pertsona eta talde etorkinak modu baketsuan bizi badira biztanle autoktonoekin eta haien arau-esparru nagusia errespetatzen badute.

Azkenik, hirugarren eredu orokor bat ere badago: kulturartekotasuna. Eredu hori errealistagoa da, kulturaniztasunari kulturen arteko eraginaren faktorea gehitzen baitio. Gainera, demokratikoagoa ere bada, kolektibo bakoitzari bere posizioa aitortzen baitio, posizio guztiak baliokideak ez izan arren. Integrazio soziala gizarte bat osatzen duten kulturen (autoktonoena eta etorkinena) arteko elkarreragin-prozesu gisa deskribatzen du eredu horrek. Elkarrekin egotetik harago joanda, bizikidetzari erreferentzia egiten dion kontzeptu bat da; bizikidetza horretan, integrazio soziala egunetik egunera eraikitzen doan prozesu bat da, eta kultura berriak iristeak harrera-gizartearen jatorrizko kultura aldatzen du.

Teoria horiei guztiei kritika[5] asko egin dakizkieke, dituzten gabeziak direla medio; horietako batek haien abiapuntuari erreparatzen dio: onartutzat ematen dute pertsona eta/edo talde etorkin guztiek ezaugarri berberak dituztela, helmugako gizarteek pertsona eta/edo talde horien ikuspegi homogeneoa dutela eta etorkinen integrazio-prozesua berdina dela. Harrerako edo helmugako gizartea (euskal gizartea, kasu honetan) ez da monolitikoa, nolabaiteko koherentzia duen jokabide kulturalen, ohituren, tradizioen, kosmobisioen, erlijioen, kapital sozialen, talde-identitateen eta abarren amalgama batez osatuta baitago; era berean, etorkinak ere heterogenoak dira, eta haien integrazio-erritmoak, desberdinak.

Horregatik, pertsonen eta/edo taldeen integrazio soziala azaltzeko azken proposamen teorikoek integrazio-prozesuaren asimetria nabarmentzen dute. Esan dezakegu, beraz, ez dagoela integrazio-prozesu bat, integrazio-prozesu ugari baino; hau da, ezar ditzakegun pertsona eta/edo pertsona-talde homogeneo adina prozesu daude.

Proposamen teoriko horien artean, hiru dira azpimagarrienak, eta hirurek onartzen dute ez dagoela pertsona edo pertsona-talde guztientzako integrazio-pro-

[5] Berriro ere lan bera aipatu behar dugu (Godenau et al., 2014); izan ere, eredu horiek berrikusi ondoren, zazpi puntu ahul egotzi dizkie, eredu horiek gizarte modernoetako integrazio sozialaren prozesuak behar bezala deskribatzeko gaitasunik gabe uzten dituztenak.

zesu komun bat, baizik eta prozesu, erritmo eta emaitza desberdinez hitz egin behar dela.

Lehenik, Portes (1989, 2000)[6] soziologoaren *asimilazio segmentatuaren* teoria daukagu. Lehen ikertzaileetako bat izan zen integrazio-prozesu eta -modu desberdinak aintzat hartzen, integrazioaz prozesu unitario gisa hitz egin beharrean. Ikuspegi kontzeptualari dagokionez, hiru integrazio-estrategia edo -modu nabarmentzen ditu: 1) arau-egitura nagusietan edo sozialki partekatuenetan sartzea; 2) segmentu prekarizatuenetan sartzea; 3) antzeko jatorria duten ondo kokatutako gizarte-taldeetan sartzea, jatorrizko kultura-jokamolde batzuei eutsiz. Gakoa, teoria horretan, jatorrizko gizarte-sareak dira.

Freeman (1986, 2004) ikertzailearen ikuspegia, *integrazio bereizia*, ere badugu. Kasu horretan, egileak hipotesi batekin lan egiten du: immigranteen sarrera edo integrazioa zenbait eremu edo dimentsio independentetan garatzen da, eta dimentsio horiek dinamika desberdinei jarrai diezaiekete. Zehazki, uste du lau esparru edo dimentsiotan oinarritzen dela integrazio sozialaren prozesua: Estatua (herritartasun-adierazleak), merkatua (lan-adierazleak), gizarte-ongizatea (bizi-kalitatearen adierazleak) eta kultura (kultura-adierazpenaren adierazleak).

Duela gutxiagokoa da Bosswick eta Heckmann (2006) egileen *harreman-sistema*. Autore horiek elkarrekin lotura duten oinarrizko lau dimentsioz osatutako sistema integral gisa ulertzen dute integrazioa, aurreko autoreak ez bezala, hark lau azpiprozesu independenteren emaitzatzat hartzen baitzuen. Egile horien iritziz, integrazio-prozesu bat arrakastatsua izateko, oreka edo egonkortasuna egon beharko du prozesu hori osatzen duten dimentsioen prozesu partzialetan. Honako hauek dira dimentsio horiek: egiturazko integrazioa (herritartasuna, enplegua, hezkuntza, etxebizitza, etab.), integrazio kulturala (akulturazioa, gaitasun bikulturalak, jatorria eta helmuga), integrazio interaktiboa (gizarte-sareak, lagunak, ezkontzak, etab.) eta integrazio identitarioa (identifikazioa, kide sentitzea, etab.).

Gure indize sintetikoa hiru korronte teoriko horietan oinarritzen da eta horietatik edaten du; izan ere, teoria horiek zera nabarmentzen dute: pertsonen, pertsona-taldeen eta/edo biztanleria migratzaileen eta autoktonoen integrazio-prozesuak dimentsio ugari dituela, asimetrikoa dela eta ez duela zertan lineala izan. Integrazioari buruz guk dugun ikuspegia hurbil dago elkarren arteko barne-harremanak dituen sistema multidimentsional dinamiko baten ideiatik, sistema hori integrazio sozial osoan datzan azken oreka lortzera bideratzen denean.

Integrazio sozialaren prozesua dimentsio anitzeko *continuum* ez-lineal eta asimetriko gisa ulertzen dugu. Txosten honetako emaitzen atalean ikusiko

[6] Fullaondok (2017) behar bezala laburtu du teoria hori, atzerritar jatorriko pertsonen seme-alaben integrazio-prozesuen azterketa teorikoen sintesi baten bidez.

dugunez, atzerritar jatorriko pertsona eta/edo talde batzuek asko aurreratu dute eta posizio onak dituzte integrazio soziala osatzen duten dimentsio batzuetan, baina, hala ere, bide luzea dute oraindik egiteko beste dimentsio batzuetan. Jakina, gure indizeak, halaber, hainbat integrazio-erritmo detektatzen ditu atzerritar jatorriko pertsonen eta/edo pertsona-taldeen artean. Eta ziur gaude ondorengo beste txosten batean luzetarako azterketa egiten dugunean, prozesuak linealak ez direla ikusiko dugula. Gutxienez, hori da gure hipotesia.

Aldagai, dimentsio eta adierazleen operazionalizazio-prozesurako, gure lanak, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, lehenik eta behin funtsezko dimentsio kontzeptualak eta analitikoak ezartzean jarri du arreta. Hauek dira dimentsio horiek: herritartasunean integratzea, lan-munduan integratzea, gizarte-ongizatean integratzea eta gizarte-partaidetzan integratzea. Ondoren, horietako bakoitzari lotutako aldagai edo adierazle zehatzak atera dira 2018ko EABIren datu-basetik.

3 Integrazioaren neurketa, dimentsioak eta indize sintetikoak

Azken urteotan, asko eta askotarikoak izan dira ahaleginak biztanleria migratzaileen eta autoktonoen integrazio soziala neurtzean datzan gizarte-arazo zaila aztertzeko. Noiz gertatzen da integrazioa? Zenbateraino esan daiteke pertsona migranteen populazio bat gizarte jakin batean integratuta dagoela? Zer dimentsio daude integrazioaren azpian? Zer dimentsioz dago osatuta? Zein dimentsio dira garrantzitsuenak? Guztiak al dira ezinbestekoak?

Goian aipatu dugun liburuan (Godenau et al., 2014), azken 15 urteetan integrazioa neurtzeko landutako ahalegin nabarmenen gainbegirada osoa egiten da, haien kritika zorrotza eskaintzeaz gain. Hauek dira ahalegin horietako azpimarragarrienak: *Proyecto I3: Indicadores de Integración de Inmigrantes*, 2005ean eta 2006an Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak sustatua (MTAS, 2007); FOESSA Fundazioaren *VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España* (ikus Laparra eta Pérez, 2008); Ioé Kolektiboaren *Barómetro Social de España* (lehen edizioa 2008koa da); Integrazioari buruzko Europako Ministro Konferentziaren *Declaración de Zaragoza* (2010) dokumentua; Eurostat-en *Indicators of Immigrant Integration. A pilot study* (2011) txostena; Europako Batzordearen Migrazio eta Barne Zuzendaritzak Huddleston, Niessen eta Dag Tjaden ikerlariei eskatutako txostena (Europako Batzordea, 2013); Etorkinen Integrazio Politiken Indizea, *MIPEX (Migrant Integration Policy Index)* izenaz ezaguna; ELGEren *Settling in: OECD Indicators of Immigrant Integration* txostenak (ELGE, 2012 eta 2015); eta, azkenik, lehen aipatu dugun Immigrazioaren Behatoki Iraunkorrak (OPI) eskatutako eta Dirk Godenauk koordinatutako *La integración de los inmigrantes en España: una propuesta de medición a escala regional* (2014) , aurreko ekimenetako bakoitzaren azterketa sakona egiten duena.

Integrazioaren dimentsioak

Ez da gure asmoa bibliografia hori berriro aztertzea, bikaina iruditzen baitzaigu lehen aipatutako lanak egiten duen berrikuspena; aurrekariei erreparatu badiegu, gure proposamenaren jatorria kokatzeko izan da. Hain zuzen, honetan datza proposamen hori: tresna bat eraikitzean Euskadin atzerritar jatorriko migratzaileek bizi dituzten integrazio sozialaren prozesu asimetrikoak detektatzeko eta norbanakoen zein taldeen zaurgarritasun-egoerak argitara ateratzeko, eta hori, botere politikoei gizarte-tentsioak eta -desberdintasunak murrizten dituzten eta gizarte-justizia, kohesioa eta tratu-berdintasuna sustatzeko balio duten erabaki politikoak hartzea errazteko.

Horretarako, gure ikerketa Zaragozako Adierazpenean oinarrituko da, bai eta Godenauk koordinatutako ikerketan (2014) parte hartu izanak ematen digun aurretiko esperientzian ere.

Beraz, horrek esan nahi du gure abiapuntuan hau izango dela: integrazio sozialaren dimentsio anitzeko sistema bat osatzen duten oinarrizko dimentsio batzuen elkarreraginaren emaitza gisa ulertzea. Zaragozako Adierazpenean aipatzen diren dimentsioetatik abiatuta –lan-munduan integratzea (enplegua), prestakuntzan integratzea (hezkuntza), inklusioa (ongizatea) eta herritartasun aktiboa (eskubideak eta partaidetza)–, geure egin ditugu aurretik maiz aipatu dugun ikerketak proposatzen dituenak (Godenau, OPI, 2014); hau da, enplegua, gizarte-ongizatea, gizarte-harremanak eta herritartasuna.

Zaragozako Adierazpenak (2010) aholkatzen zuen, halaber, integrazio sozialaren neurketak, denboran irauteko, bigarren mailako eta kalitatezko informazio-iturrietan oinarritu beharko lukeela; eta halakoak dira, funtsean, EBko estatu kideetako iturri ofizialak. Gure kasuan, baldintza hori ondo betetzen du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoak, eta, gainera, gure egitekoa errazten digun aldizkako estatistika-lan bat ere egiten du. Lau urtean behin egiten duen Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaz (EABI) ari gara; dagoeneko hiru edizio ditu; 2010, 2014 eta 2018koak, alegia.

Estatistika-lan horrek atzerritar jatorriko pertsonen lagin garrantzitsu bat aztertzen du, baina biztanleria autoktonoaren daturik eman gabe. Gure asmoa, beraz, ez da bi biztanleria horien (etorkina eta autoktonoa) errealitate soziala alderatzea, bataren eta bestearen artean dauden desberdintasunak ezagutzeko, baizik eta biztanleria etorkineko kideen arteko alderaketa egitea, beste pertsona edo kolektibo etorkin batzuekiko duten posizio erlatiboa ezagutzeko, bai integrazio sozialaren prozesu globalean, bai hura osatzen duten dimentsioetan.

Beste era batera esanda, gure asmoa tresna bat garatzea da, eta tresna horrek integrazio sozialean posizio erlatibo onenak zer etorkinek lortzen dituzten jakiteko

eta kokatzeko aukera ematea nahi dugu, hasteko. Horrekin batera, posizio erlatibo txarrenetan zein geratzen diren ere aztertu nahi dugu, bai eta posizio onenen eta txarrenen ezaugarriak zein diren ere. Bestalde, ez da ahaztu behar integrazio sozial horrek elementu edo dimentsio hauek hartuko lituzkeela kontuan: lanmundua (eta prestakuntza), ongizate materiala, interakzioa eta kapital soziala, eta herritar gisa eskubideak lortzea eta parte-hartze soziala.

Horrenbestez, gure helburua da ahalik eta modu zientifikoenean ezartzea zer posizio duten pertsona eta kolektibo etorkinek integrazio-prozesuan, haien premietan eta arazoetan gehiago eta hobeto sakondu ahal izateko eta haien gizarte-errealitatea hobetzeko.

Indize sintetikoen aurrekari batzuk

Gure integrazio-indize sintetikoari Inklusioaren eta Integrazioaren Euskal Indizea deitu diogu (ingelesezko *Basque Inclusion Integration Index* izena oinarri hartuta, BI3 akronimora murriztu dugu), eta beste zenbait arlotako antzeko adibide asko bezala, osagai nagusien[7] bigarren mailako faktore-analisi bat hautatutako aldagai edo adierazleen multzo bati (aztertu nahi diren dimentsioak adierazten dituzte) aplikatzean oinarritzen da. Lehen faktorialak, hautatutako aldagai guztiei aplikatzen zaienak, informazioa murriztuko digu eta aldagaiak faktore edo dimentsiotan multzokatuko ditu, aldagarritasun handiena jasotzen duten faktore nagusietan, alegia (gehien diskriminatzen dutenak dira); bigarren faktoriala, berriz, lortutako faktore horiei aplikatuko zaie, eta aldagarritasunaren gaitasun esplikatiboa haztatuko du. Horrela, lortutako dimentsioen indize sintetiko partzialak lortuko ditugu, bai eta analisia osatzen duen aldagai multzoaren indize sintetiko bat ere.

Horrenbestez, datu-basea osatzen duen pertsona bakoitzaren azken puntuazio bat lortuko dugu *continuum* batean, pertsona horren integrazio sozial globalaren mailarekin bat datorrena; horrez gain, zenbait puntuazio partzial ere lortuko ditugu, eta horiek integrazio sozialaren sistema osatzen duten dimentsio

[7] Osagai nagusien faktore-analisia datuak prozesatzeko aldagai anitzeko teknika bat da, eta helburu nagusitzat fenomeno baten egitura ezkutua agerian jartzea du. Interdependentzia-tekniken familiako teknika bat da, faktore-tekniken azpimultzokoa, korrespondentzia sinpleen analisiarekin (AFCS), korrespondentzia anitzen analisiarekin (AFCM) eta dimentsio anitzeko eskalekin (EMD) batera. Teknika horiei guztiei datuak murrizteko teknikak ere esaten zaie, eta oinarri matematiko desberdina duten arren, helburu hau partekatzen dute: osotasun bat (integrazio soziala) osatzen duten aldagai multzo handi bat (integrazio-adierazleak) faktore edo osagai kopuru txiki batera murriztea, aldagarritasunaren edo guztizko bariantzaren zatirik handiena jaso edo azaldu dezaten (hau da, bereiz dezaten). Faktore horiek, aldagarritasunaren osagai nagusiek, funtsezko interpretazioa izango dute, eta aztertu beharreko fenomenoaren (gure kasuan, integrazio soziala) egitura osatzen duten benetako dimentsioak izango dira. Eskuliburu askotan deskribatzen dira aldagai anitzeko teknika horren oinarriak; horietako batean (Hair et al., 1999), oso modu didaktikoan eta errazean egiten da.

bakoitzeko integrazio-maila adieraziko dute. Posizio erlatiboaz ari gara beti, eta, beraz, *continuum* horretan integrazio-adierazle onenak dituzten pertsonak kokatuko dira goialdean, eta behealdean, berriz, adierazle edo aldagai horietan balio txikienak dituztenak.

Beste era batera esanda, puntuazio altuak lortuko dituzte indizean (integrazio sozial aurreratua dutela adieraziko duelako) ezaugarri hauek dituzten atzerritar jatorriko pertsonek: kalitatezko lanpostuak, soldata onekin, baldintza onekin eta prestakuntza-maila altuarekin; osasun ona, familia-arazorik ez, eta egoera onean dagoen eta baldintza egokiak dituen etxebizitza jabetzan; komunikatzeko hizkuntza-gaitasuna, kapital sozial garrantzitsua, aisialdi-harremanak eta gizarte-partaidetza pertsona autoktonoekin eta atzerritar jatorrikoekin; integratuta eta diskriminatu gabe daudelako ustea; administrazio-egoera erregularra, boto-eskubidea, osasun-txartel indibiduala (OTI), eta partaidetza euskal bizitza politikoan eta sindikalean. Eta indizean puntuazio baxuak (euskal gizartean integrazio sozial eskasa dutela adieraziko duelako), berriz, ezaugarri hauek dituzten atzerritar jatorriko pertsonek: langabezian edo lanpostu txarrekin, diru-sarrerarik eta prestakuntzarik gabe; osasun eskasa, familia-arazoak eta etxebizitzarik ez jabetzan; kapital sozialik ez, ez eta euskaraz eta gaztelaniaz egiteko gaitasunik ere; harreman sozialik gabe, diskriminatuta; administrazio-egoera irregularra, herritartasun-eskubiderik ez, eta partaidetza politiko eta sindikalik ere ez.

Hasiera batean, aurretiazko literatura zientifikoak proposatzen dituen dimentsioak erabiliko ditugu azterketa estatistikoa egiteko, bai eta geure ikuspegiak proposatzen dituenak ere; hau da, lehen aipatu ditugun dimentsioak (enplegua, gizarte-ongizatea, gizarte-harremanak eta herritartasuna). Baina, azkenik, osagai nagusien faktore-analisiak berretsiko edo ezeztatuko dizkigu dimentsio horiek, eta integrazioaren azken egitura bat proposatuko digu, dimentsio enpirikoen multzo batez osatua. Dimentsio horiek elkarren artean lotutako aldagaien multzoak dira, esanahi substantiboa dute eta aldagarritasun osoaren zati garrantzitsu bat jasotzen dute.

Indize sintetiko bat eraikitzeko interesa duten haientzat, baditugu adibide onak eta askotarikoak literatura zientifikoan. Proposatzen ditugun adibideak argigarriak baino ez dira, askoz ere gehiago baitaude, migrazioen alorreko[8] gertukoenetatik hasita: Godenau et al. (2014) eta Fernández García et al. (2018).

[8] Hauek dira gure erreferentzia zuzenenak: Godenau et al. (2014), Fernández García et al. (2018) eta Poza Lara et al. (2010). Dena dela, bibliografian beste erreferentzia hauek ere jaso ditugu: Sanjurjo et al. (2000), Escobar (2006), Mondéjar-Jiménez et al. (2007), Pérez García et al. (2008), Blancas Peral (2010 eta 2011), Domínguez Serrano (2011).

BI3 indize sintetikoa: atariko dimentsioak, aldagaiak, faktoreak

BI3 integrazioaren indize sintetikoa Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestak (EABI) egindako azterketan eta haren datu-basean jasotako informaziotik lortu dugu. Inkesta hori Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoaren estatistika-lan ofiziala da. Azterketak hiru ediziotako datuak ematen baditu ere (2010, 2014 eta 2018), gure indizea 2018ko EABIn lortutako datuekin kalkulatu eta aplikatu dugu; hau da, azken estatistika-lanean argitaratutako datuak erabili ditugu.

Hau da EABI inkesten fitxa teknikoa:

- 2010eko EABI: atzerritar jatorriko 16 urtetik gorako 2.286 pertsonaren benetako lagina. Horrek esan nahi du +/-% 2,34ko gehienezko Le edo lagin-errorearekin lan egin dela, eta % 97,5eko Km edo konfiantza-mailarekin (Horri kasu txarrenean, p = q = 0,5 denean, dagokion Z = 2,24 da). Benetako lagin horrek atzerritar jatorriko pertsonak bizi diren etxebizitza edo establezimenduetako zenbait bizikidetza-unitatetan (1.949 unitate) bizi diren 4.739 pertsonari buruzko informazioa ematen du (Le = +/-% 1,59; Km = % 97,5).

- 2014ko EABI: atzerritar jatorriko 16 urtetik gorako 2.350 pertsonaren benetako lagina. Horrek esan nahi du +/-% 2,29ko gehienezko Le edo lagin-errorearekin lan egin dela, eta % 97,5eko Km edo konfiantza-mailarekin (Horri kasu txarrenean, p = q = 0,5 denean, dagokion Z = 2,24 da). Benetako lagin horrek atzerritar jatorriko pertsonak bizi diren etxebizitza eta establezimenduetako zenbait bizikidetza-unitatetan bizi diren 4.873 pertsonari buruzko informazioa ematen du (Le = +/-% 1,58; Km = % 97,5).

- 2018ko EABI: atzerritar jatorriko 16 urtetik gorako 2.418 pertsonako benetako lagina. Horrek esan nahi du +/-% 1,20ko gehienezko lagin-errorearekin lan egin dela, eta unibertsoa 165.153 pertsonakoa[9] dela. Benetako lagin horrek atzerritar jatorriko 4.732 pertsonari buruzko informazioa ematen du (Le = +/-% 2,15, 211.208 pertsonako gutxi gorabeherako populazio baterako); datu horiek etxebizitzan edo establezimenduan atzerritar jatorriko pertsonak dituzten 2.418 bizikidetza-unitateri buruzkoak dira (Le = +/-% 4,62, 95.651 familiako gutxi gorabeherako unibertso baterako).

[9] Lagin-erroreei eta kalkulatutako unibertsoei buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak emandakoak dira.

Fitxa teknikoetan, bereizi egiten da 16 urtetik gorakoei egindako inkestez osatutako laginen eta atzerritar jatorriko pertsonaren bat bizi den bizikidetza-unitateak baliatuz osatutakoen artean; azken horietan, unitate bakoitzean bizi diren atzerritar jatorriko pertsona guztien informazioa jasotzen da.

BI3 integrazioaren indize sintetikoa egiteko, 2018ko lehen lagin motak emandako datuekin lan egin dugu; hau da, 16 urtetik gorako atzerritarrek osatzen duten laginarekin. Lagin hori oso zabala da, eta hari aplikatutako galdera-sortan 120 galdera baino gehiago daude; horrek ia 500 aldagai sortzen ditu datu-fitxategian. Atzerritar jatorriko pertsonen integrazio-maila jakiteko eta indizea garatzeko, aldagai horien aukeraketa bat egin dugu Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiko adituen, EHUko irakasleen eta/edo Ikuspegiko ikerlarien arteko bilera batean. Hautatutako aldagaiok aipatzen ari garen lau dimentsioekin izan behar zuten zerikusia; izan ere, lan-munduan eta prestakuntzan, gizarte-ongizatean, gizarte-harreman eta -elkarreraginetan, eta herritartasun-eskubideetan integratzearekin lotutako alderdiak jaso behar zituzten.

Etapa hauei jarraitu diegu Inklusio eta Integrazio Sozialaren Indizea eraikitzeko:

1. Aldagai esanguratsuak aukeratzea ikerketaren esparru kontzeptualetako bakoitzean. Hasiera batean, integrazioaren zenbait alderdirekin lotutako adierazle hauek detektatu eta aukeratu genituen: enpleguarekin eta prestakuntza-mailarekin lotutako 17, gizarte-ongizatearekin zerikusia zuten 24, gizarte-harremanekin lotutako 20 eta herritartasunarekin lotutako 9. Hau da, 70 aldagai, guztira. Lehen fase hori 2014ko datu-basearekin egin genuen, eta datu haietan oinarritu ginen indizea azkenean osatuko zuten aldagaiak aukeratzeko.

2. Aldagaiak birkodifikatzea. Aukeratutako 70 aldagaiak berriz kodifikatu genituen, eta tartedun aldagai bihurtu genituen, hala behar genuenean.

3. 2014ko EABIko datuei osagai nagusien faktore-analisia[10] aplikatzea. Lehen faktore-analisi hori esploratzeko asmoz aplikatu genuen. Aldagai erredundanteak eta/edo gutxi bereizten zutenak (aldagarritasun txikia) identifikatu nahi genituen, kentzeko. Azkenean, 50 aldagairekin geratu ginen: 16 aldagai enpleguaren eta prestakuntza-mailaren arlokoak, 16 gizarte-ongizatearekin lotuak, 12 gizarte-harremanekin zerikusia zutenak eta 6 herritartasunari buruzkoak.

[10]Esploratzeko egindako osagai nagusien lehen faktore-analisi honen bidez, aldagarritasun txikia jasotzen duten aldagai erredundanteak kendu edo garbitu nahi izan genituen. Hala, azterketan sartutako 70 aldagaietatik, 20 alde batera uztea erabaki genuen, nahi ez genituen balioak ematen zituztelako irudiaren aurkako korrelazio-koefizienteetan eta/edo Lagina Egokitzeko Neurriaren (MSA) kalkuluan banaka lortutako balioetan.

4. Osagai nagusien lehen faktore-analisia aplikatzea. Fase hau 2018ko EABIko datu-basearekin hasi genuen, eta beste hiru aldagai baztertu genituen, baldintza teknikoak (elkarrekiko harreman txikia) betetzen ez zituztelako; beraz, indizea osatzen duten aldagaien behin betiko multzoa 47 aldagaikoa da. Lehen faktore-analisi horren bidez, aldagai horiek integrazio sozialaren barne-egitura osatzen duten zazpi faktoretara edo dimentsiotara murriztu genituen.

5. Osagai nagusien bigarren faktore-analisi bat, bigarren mailakoa, aplikatzea aurreko analisitik ateratako zazpi dimentsioei. Faktore-analisi horren bidez, dimentsio bakoitzak banako bakoitzaren integrazio sozial globalean zuen garrantzia hierarkizatu eta haztatu ahal izan genuen.

6. Indize partzialen eta integrazio sozialaren indize sintetikoaren kalkulua. Kasu bakoitzak faktore bakoitzean lortutako puntuazioetan oinarrituta (hau da, detektatutako dimentsio edo arlo bakoitzeko integrazio-maila kontuan hartuta), indize partzialak kalkulatu genituen, eta faktore bakoitzak azaldutako guztizko bariantzan zuen garrantzitik abiatuta, indize sintetikoa lortu genuen.

2018ko EABI azterketatik hasiera batean aukeratutako aldagaiak[11] honela banatzen dira aztertu beharreko atariko lau kontzeptu-eremuetako bakoitzerako:

- Enpleguaren arloa: azkenean, 15 aldagai aukeratu ditugu atzerritar jatorriko pertsonen lan-munduko integrazioaren atariko adierazle gisa.

- Gizarte-ongizatearen arloa: beste 15 aldagai aukeratu ditugu gizarte-ongizateko integrazioaren adierazle gisa.

- Gizarte-harremanen arloa: esparru honetan, 12 aldagairekin lan egitea erabaki dugu, gizarte-harremanetako integrazioaren adierazle gisa.

- Herritartasunaren arloa: 5 aldagairi eustea adostu dugu, herritartasun osoa baliatzea adierazten duen integrazioaren adierazle gisa.

1. grafikoan atariko dimentsio eta adierazleen eskema bat jarri dugu; osagai nagusien lehen mailako faktore-analisia egin aurrekoak dira.

47 aldagaiko multzo horri osagai nagusien lehen mailako faktore-analisia aplikatu diogu, helburu hauekin: aldagaiek elkarren artean zer lotura dituzten ikustea; faktoretan edo dimentsiotan nola multzokatzen diren eta haietako bakoitza

[11] Eranskinetan adierazi dugu zehatz-mehatz zein diren aldagai horiek.

zer aldagaik osatzen duten aztertzea, eta guztizko bariantza azaltzeko duten gaitasuna ezagutzea.

1. grafikoa. Atariko dimentsioak eta adierazleak

Atariko dimentsioak eta esleitutako aldagaiak

Enplegua 15	Ongizatea 15	Harremanak 12	Herritartasuna 5
Z61 EAEn lan egitea	P61 Etxebizitza-erregimena	Z99 Aisialdia betetzea	Z111 Hautesk. autonomikoak
Z81 Lanaren edukia	P69 Diru-sarrerak oinarrizko.	Z100 Ais. taldetan parte hartzea	Z112 Udal-hauteskundeak
Z82 Lanpostua	P70 Etxebizitza-gastuak	Z101 Integrazio-zailtasunak autoktonoekin	Z121 5 urterako itxaropenak
Z83 Lanean mailaz igotzea	P71 Ustekabeko gastuak	Z102 Integrazio-zailtasunak etorkinekin	Z122 Etorkizun. itxaropenak
Z84 Lan-ordutegia	P72 Haragia jatea	Z103 Etorkinen talde informalak	P22 Administrazio-egoera
Z85 Harremana nagusiekin	P73 +% 30 etxeb.-gastu.	Z104 Etorkinen erakundeetan parte hartzea	
Z86 Lan-erritmoa	P77 Ez-ordain., atzerapenak	Z105 Kirol-elkarte edo -klubetan parte hartzea	
Z87 Lan-baldintzak	P78 Argindarra, ura moztea	Z106 Hezkuntza- eta/edo kultura-taldetan parte hartzea	
Z88 Lanaren gogortasuna	P80 Familiari laguntza eskat.	Z114 Autoktonoei buruzko balorazioa	
Z89 Laneko arriskuak	P81 Laguntza ekonomikoa	Z115 Etorkinei buruzko balorazioa	
Z90 Laneko estresa	P82 Gainzorpetzea	Z118 Integrazioa euskal gizartean	
Z91 Ordainsaria	P83 Oinarrizko premiak	Z128B Gaztelania jakitea	
Z92 Lana-bizitza egokitzap.	P86 Pobrezia-maila		
Z124 Enplegu-itxaropenak	P88 Gizarte-zerb. erabilera		
P84 Diru-sarrerak	P90 Giz.-zerb. pribatuen erabilera		

Iturria: txostengileak egina

Behin aldagaien korrelazio-adierazleak aztertuta, eta aldagai horiek analisian parte hartzeko baldintzak[12] betetzen dituztela eta, analisi hori egiteko, aldagai asko faktore edo dimentsio kopuru txiki batera murriztu daitezkeela egiaztatuta, lortutako faktoreak[13] ateratzen eta txandakatzen hasi gara.

Lehen faktorial horrek zazpi faktoretan edo dimentsiotan[14] antolatu dizkigu 47 aldagaiak, eta aldagai edo faktore horiek jarri ditugu 2. grafikoan. Funtsean, lehen faktorea enpleguarekin eta lan-baldintzekin zerikusia duten aldagai gehienek osatzen dute (gainera, esleituta dauden faktorean faktore-saturazio handiena duten aldagaiak dira); bigarrena gizarte-ongizatearekin zerikusia duten aldagaiek osatzen dute; hirugarrena egoera ekonomikoari begira jartzen gaituzten aldagaiek osatzen dute; laugarrenak alderdi identitarioa osatzen duten aldagaiak elkartzen ditu; bosgarren faktoreak edo dimentsioak herritarren eskubideetan integratzea jasotzen duten aldagaiak biltzen ditu; bosgarrenak partaidetza komunitarioarekin lotutako integrazioari erreparatzen dio, eta zaz-

[12] 2018ko EABIren datu-basearen azterketan, hauek dira koefiziente horien balioak: erabakigarria, 1,69E-0,18; KMO, 0,947; Bartlett-en testaren esangura, 0,000; Lagina Egokitzeko Neurriaren balio guztiak 0,50 baino handiagoak dira, eta gehienak 1etik hurbil daude.

[13] Argitalpen jakin baten (Poza et al., 2010) ereduari jarraituz, PROMAX errotazio zeihar bat erabili dugu, urrats honetan ez baitugu nahitaez behar faktore guztiak elkarrekiko independenteak izatea.

[14] Dimentsio horiek guztizko bariantzaren % 60,86 jasotzen eta azaltzen dute.

pigarrenak bizi- eta etorkizun-itxaropenetan adierazitako integrazioari egiten dio erreferentzia, nabarmen.

2. grafikoa. Lehen mailako faktorialaren dimentsioak eta adierazleak, eta faktore bakoitzaren bariantza-ehunekoa bigarren mailako faktorialean. 2018ko EABI

Inklusioaren eta Integrazioaren Euskal Indizea BI[3]

Lan-munduan % 29,95

Z87 Lan-baldintzak
Z86 Lan-erritmoa
Z82 Lanpostua
Z81 Lanaren edukia
Z88 Lanaren gogortasuna
Z89 Laneko arriskuak
Z92 Lana-bizitza egokitzapena
Z85 Harremanak nagusiekin
Z90 Laneko estresa
Z84 Lan-ordutegia
Z91 Ordainsaria
Z61 EAEn lan egitea
Z83 Lanean mailaz igotzea

Ongizatean % 16,31

P69 Diru-sarrerak oinarrizkorako
P70 Etxebizitza-gastuak
P83 Oinarrizko premiak
P72 Haragia jatea
P77 Ez-ordaintzeak, atzerapenak
P80 Familiari laguntza eskatzea
P82 Gainzorpetzea
P78 Argindarra, ura… moztea

Sozioekonomikoa % 14,37

P81 Laguntza ekonomikoa
P84 Diru-sarrerak
P88 Gizarte-zerbitzuen erabilera
P86 Pobrezia-maila
P71 Ustekabeko gastuak
P90 Giz.-zerb. pribatuen erabilera
Z124 Enplegu-itxaropenak
P73 +% 30 etxebizitza-gastuetan
P61 Etxebizitza-erregimena

Identitarioa % 12,48

Z118 Integrazioa euskal gizartean
Z101 Integrazio-zailtasunak autoktonoekin
Z114 Autoktonoei buruzko balorazioa
Z99 Aisialdia betetzea
Z128B Gaztelania jakitea
Z102 Integrazio-zailtasunak etorkinekin
Z115 Etorkinei buruzko balorazioa

Herritartasunean % 11,06

Z112 Udal-hauteskundeak
Z111 Hauteskunde autonomikoak
P22 Administrazio-egoera

Komunitarioa % 10,12

Z100 Aisial. taldetan parte hartzea
Z105 Kirol-elkarte edo -klubetan parte hartzea
Z106 Hezkuntza- eta/edo kultura-taldetan parte hartzea
Z104 Etorkinen erakundeetan parte hartzea
Z103 Etorkinen talde informalak

Itxaropenetan % 5,71

Z121 5 urterako itxaropenak
Z122 Etorkizunerako itxaropenak

Iturria: txostengileak egina

Orain arte, integrazio sozialaren egitura eta dimentsioak aztertu dituzten azterlan gehienak Europako herrialde edo eskualdeetan eskuragarri dauden informazio-iturri estatistikoek emandako adierazle objektiboetan edo ez hain objektiboetan oinarritu dira. Alabaina, EABI kontuan hartu denean, pertzepzioak, balorazioak, autoesleipenak eta abar jasotzen dituzten aldagai subjektiboez gain, gure faktorialean lortutako dimentsioek zazpi osagai hauetan bereizi dute integrazioa:

1. Lan-munduan integratzea: lan-merkatuan sarbidea izateari eta oraingo zein iraganeko lan-baldintzekin gustura egoteari erreparatzen die integrazioaren dimentsio honek.

2. Gizarte-ongizatean integratzea: atzerritar jatorriko pertsonak gizarte-ongizateari dagokionez zer egoeratan dauden, oro har, erakusten diguten alderdiak jasotzen ditu.

3. Integrazio sozioekonomikoa: aurreko biak ez bezala, dimentsio hau diruarekin lotutako alderdietara mugatzen da, batez ere (diru-sarrerak, laguntza ekonomikoak eskatzeko beharra, etab.).

4. Integrazio identitarioa: faktore hau euskal gizarteko kide sentitzearekin dago lotuta, bai eta pertsona-talde autoktonoetan eta etorkinetan sartzeko zailtasunekin eta kolektibo horiei buruz egiten den balorazioarekin ere.

5. Herritar gisa integratzea: faktore honek atzerritar jatorriko pertsonek herritar- eskubideak baliatzeko duten egoerari erreparatzen dio.

6. Integrazio komunitarioa: faktore honek atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze komunitarioaren maila jasotzen du.

7. Bizi-itxaropenen integrazioa: pertsonen bizi-itxaropenak jasotzen ditu dimentsio honek, eta euskal gizartea migrazio-prozesuaren azken etapa edo beste etapa bat dela sentitzearekin dago lotuta.

Zazpi dimentsio horietan oinarrituta, bigarren faktorial bat aplikatu dugu, bigarren mailakoa[15] deritzona. Analisi horren bidez, integrazio soziala osatzen duten dimentsioetako bakoitzak duen garrantzia hierarkiza dezakegu, eta, horrela, integrazioaren indize sintetikoa kalkulatzeko behar adina datu edukiko dugu jada.

2. grafikoan ez ditugu jaso aldagaien faktore-saturazioak (lehen faktorialeko faktore bakoitzarekin zuten lotura-maila), sinplifikatzeko asmoz, baina haietako bakoitzaren gaitasun esplikatiboa sartu dugu (bigarren mailako faktorialak emandakoa), eta horrek integrazio soziala oro har osatzen duten dimentsioetako bakoitzak zer garrantzi duen adierazten digu.

[15]Aipatutako ereduari jarraituz (Poza et al., 2010), bigarren faktore-analisi honetarako VARIMAX errotazio ortogonala aukeratu dugu, lortutako faktoreen independentzia maximizatzen baitu.

4 Emaitzak

Atal honetan, datuak prozesatzetik lortutako informazioa garatu behar dugu, behin integrazio-indize partzialak, ezarritako zazpi dimentsioei dagozkienak, eta integrazio sozialaren indize sintetikoa kalkulatu ditugunean.

Datuak prozesatzearen helburua hau izan da: atzerritar jatorriko pertsonen eta pertsona-taldeen artean zer erritmo desberdin detektatu diren jakitea, zazpi dimentsioetako bakoitzean integratzean egindako aurrerapenetan, batetik, eta integrazio sozialean oro har egin dituztenetan, bestetik. Horrez gain, egiaztatu nahi izan dugu pertsona edo pertsona-talde berek integrazio-prozesuetan dituzten aurrerapen (edo atzerapen) horiek ez direla baliokideak dimentsio guztietan.

Atala lau bloketan egituratu dugu:

1. Indize sintetikoa: *Basque Inclusion Integration Index* BI3
2. Integrazio asimetrikoa: aldagai iragarleak. Integrazio-erritmo desberdinak bereizten dituzten aldagaiak
3. Integrazio sozialaren fase desberdinetan daudenen tipologiak
4. Asimetria dimentsioen integrazioan. Aztertutako zazpi dimentsioetan duten integrazio-erritmo desberdinaren araberako pertsona-taldeak

Indize sintetikoa: Basque Inclusion Integration Index BI3

Integrazio-indizearen balioa kalkulatuta, 1,38 eta -1,99 puntu artean dagoela ikusi dugu; horrela, zenbat eta gehiago egin aurrera pertsona batek integrazio sozialaren prozesuan, orduan eta puntuazio handiagoa lortuko du gure indizean. 3. grafikoan ageri da lagin osoan lortutako puntuazioen banaketa; hau

da, 2018ko EABIren banakako galdeketako 2.418 pertsonako lagin osoarena, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko 16 urtetik gorako pertsonei dagokiena. Normala den bezala, puntuazio faktorialetan oinarritutako indize sintetiko bat egiten dugunean, batez besteko puntuazioak 0,00 puntu izan behar du.

Datu horiek, hasteko, atzerritar jatorriko pertsonek integrazio sozialaren prozesuan erritmo asimetrikoa dutela egiaztatzeko aukera ematen digute. Zenbait pertsona (aztertutako gehienak) grafikoaren eskuineko aldean ageri dira, integrazio sozialaren maila onenak lortu direla adierazten duen hartan, alegia; beste batzuk, berriz, banaketaren ezkerreko aldearen amaieran ageri dira, eta horrek adierazten digu bide luzea dagoela oraindik egiteko EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsona horien integrazioan.

3. grafikoa. *Basque Inclusion Integration Index* BI3



Iturria: txostengileak egina

Hauek dira integrazio soziala oro har osatzen duten indize partzialen edo dimentsioen banaketen deskribapenak:

- Atzerritar jatorriko pertsonak lan-munduan integratzearen dimentsioko balioak 1,19 punturen eta -1,98 punturen artean daude. Lortutako banaketari erreparatzen badiogu, puntuazio negatiboak dituen pertsona kopuru garrantzitsu bat nabarmentzen da; pertsona horiek ez dute lanik eta/edo lanbaldintza oso txarrak eta ezegonkorrak dituzte.

- Atzerritar jatorriko pertsonak gizarte-ongizatean integratzearen dimentsioko balioak 0,78 punturen eta -4,60 punturen artean daude. Lortutako banake-

tari begiratuz gero, nabarmentzen da pertsona kopuru garrantzitsu batek puntuazio positiboak dituela; horrek argi uzten du aurrerapen garrantzitsuak izan direla arlo horretan, eta alde handia dagoela pertsona horien eta besteen artean.

- Atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozioekonomikoaren dimentsioko balioak 1,92 punturen eta -2,51 punturen artean daude. Lortutako banaketari erreparatuz gero, ikusten da garrantzitsua dela balio altuak eta positiboak dituzten pertsonen kopurua; egoera ekonomikoan posizio aurreratuak dituzte pertsona horiek.

- Atzerritar jatorriko pertsonen integrazio identitarioaren dimentsioko balioak 1,63 punturen eta -5,61 punturen artean daude. Puntuazioen artean alde handiak daude; izan ere, atzerritar jatorriko pertsona batzuk erabat identifikatuta eta integratuta sentitzen dira euskal gizartean; beste batzuek, aldiz, ia ez dute hasi ere egin prozesu hori.

- Atzerritar jatorriko pertsonek herritartasunean duten integrazioaren dimentsioko balioak 3,04 punturen eta -2,32 punturen artean daude. Zenbakien artean alde handiak daude; izan ere, atzerritar jatorriko pertsona batzuk eta espainiar jatorriko pertsonak eskubide berberen jabe dira eta baliatu egiten dituzte, nazionalizatzea lortu dutelako edo EBkoak direlako; beste batzuk, berriz, ez dira herritartasun-eskubideetako bat beraren jabe. Esate baterako, puntuazio negatiboenak dituztenei gertatzen zaie hori, administrazio-egoera erregularrik ere ez baitute.

- Atzerritar jatorriko pertsonen integrazio komunitarioaren dimentsioko balioak 6,55 punturen eta -0,92 punturen artean daude. Dimentsio horrek pertsona etorkinekin lotutako zenbait erakundetan duten partaidetza jasotzen du, bai eta erakunde mistoetan dutena ere (hezkuntza- eta kirol-erakundeetan, kulturaletan, aisialdikoetan eta abarretan). Banaketa horrek adierazten digu atzerritar jatorriko pertsona gehienen posizioa ez dela oso aurreratua partaidetza komunitarioari dagokionez.

- Azkenik, atzerritar jatorriko pertsonek etorkizuneko itxaropenen dimentsioan dituzten balioak 1,21 punturen eta -4,31 punturen artean daude. Datuen banaketak erakusten digu pertsona gehienek puntuazio positiboak lortzen dituztela (gure artean geratzeko asmoa duten pertsonak dira, eta hori integrazio sozialaren zeharkako adierazlea da); beste pertsona-talde batek, alde negatiboan, jatorrizko herrialdera itzultzeko itxaropenari eusten dio, hori baita migrazioetako askoren hasierako asmoa (gure komunitatean integratu ez izanaren zeharkako adierazlea da hori).

Integrazio asimetrikoa: aldagai iragarleak

Indize sintetiko bat egin dugu eta azken puntuazio bana eman diogu atzerritar jatorriko pertsonetako bakoitzari integrazio-maila erlatiboaren zazpi dimentsio partzialetan eta azken emaitzan, eta, horri esker, desberdintasunak ezar ditzakegu pertsona batzuen eta besteen prozesuen artean. Horrez gain, aukera ematen digu agerian jartzeko atzerritar jatorriko pertsonek eta kolektiboek integrazio sozialaren prozesuetan dituzten erritmo desberdinak.

Beste hitz batzuetan, atzerritar jatorriko pertsonen ezaugarri soziodemografikoak jakinda, jokabideak (integrazio-maila desberdina) bereizten dituzten aldagaiak detekta ditzakegu, eta integrazio sozialean abiada handiagoz aurrera egiten duten edo, gutxienez, hobetu diren taldeak ezar ditzakegu, bai eta arreta jarrarazi ere astiroago aurrera egiten duten, oztopo gehiago dituzten edo, besterik gabe, zailtasun handiagoei aurre egin behar dieten pertsona-taldeetan.

Integrazio-maila desberdinak (pertsona-taldeen arteko aldagarritasuna) azaltzeko ahalmena duten aldagaiak aurkitzen baditugu, jokabideak iragar ditzaketen aldagai bihurtuko dira, eta horrek lagundu egin diezaguke tipologiak ezartzen integrazio sozialaren prozesuan posizio erlatibo hobeak eta txarragoak dituzten pertsonen artean.

Hala, aukera emango diogu jarduera politikoari zehaztasun handiagoz detektatzeko jende-multzo edo pertsona-talde zaurgarrienak, zailtasun handienak dituztenak, eta/edo posizio erlatibo txarrenean daudenak, eta, agian, integrazio-posizio hobeak ahalik azkarren lortzeko aukera ematen dieten programak edo ekintzak behar dituztenak.

Euskal gizartean integratzeko eta bertako guztiz egiteko prozesuaren fase berean al daude, gure ustez, atzerritar jatorriko pertsona eta/edo talde guztiak? Ala, aitzitik, uste dugu prozesu hori asimetrikoa dela eta sumatzen dugu pertsona eta/edo talde batzuei gehiago kostatzen zaiela eta egoera erlatibo okerragoan daudela? Oso litekeena da, baldin lerro hauek irakurtzen ari denak migrazioen esparruan lan egiten badu, posizio-erlatibo hobearekin edo txarragoarekin lotutako zenbait profil edo aldagai dagoeneko bururatu izana.

Datuen bidez egiaztatuko dugu hori; izan ere, gure Integrazio Sozialaren Indizea zenbait aldagai soziodemografikorekin gurutzatu dugu, kategorien arteko alde esanguratsuak gertatzen diren ikusteko. Hauek dira aldagai horiek: sexua, nazionalitatea, jatorriko eskualde demografikoa, egoera zibila, minoriaren bateko kide izatea, ikasketa-maila, lanbidea, jarduera, zenbat denbora igaro den Espainian, erroldatuta egindako denbora eta administrazio-egoera. 1. taulan ageri den datuen laburpenak adierazten digunez, aldagai gehienetan jokabide-desberdintasun handiak daude kategorien arabera. Sexuaren aldagaian, eta aldagai horretan soilik, ez da desberdintasun esanguratsurik ageri gizonen eta

emakumeen artean (esangura, 0.505); horrek adierazten digu ez dagoela alde handirik, kopuru handitan, atzerritar jatorriko gizonezkoen eta emakumeen integrazio sozialaren prozesuan.

1. taula. Integrazio soziala bereizten duten aldagaiak

Integrazio sozialean aurrerapen gutxien egin duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Integrazio sozialean aurrerapen handienak egin dituzten pertsonen profila
16 urtetik 24ra	Adina	.000	25 urte eta gehiago
Atzerritarra	Nazionalitatea	.000	Espainiakoa
Saharaz hegoaldeko Afrika, Magreb, Senegal	Jatorria	.000	Argentina/Txile/Uruguai, Mendebaldeko EB, Kolonbia/Ekuador/Peru, Brasil/Venezuela/ Dominikar E. , Txina
Ezkongabea	Egoera zibila	.000	Ezkondua
Erlijiosoa	Minoria	.000	Beste egoera batzuk
Ikasketarik gabe	Ikasketak	.000	Unibertsitatekoak, LH II
Kualifikaziorik gabe	Lanbidea	.000	Zuzendaritzakoak, teknikariak, langileak
Langabe egon daitekeena eta ez-aktiboa	Jarduera	.000	Lanean
2 urte baino gutxiago	Urte Espainia	.000	15 urte eta gehiago
Erroldatu gabe, 5 urte baino gutxiago	Urte errolda	.000	Betidanik, 10 urte baino gehiago
Irregularra, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena, beste lege-egoera batzuk	Administ. Ego.	.000	Aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin, bizileku-baimen iraunkorra, nazionalizatuta

Iturria: txostengileak egina

Gainerako aldagaiek lotura esanguratsua dute integrazio sozialarekin, eta hau da integrazio-egoera onenarekin lotutako pertsonen profila: 24 urtetik gorako pertsonak dira, espainiar nazionalitatea dute (nazionalitate bikoitza ere izan dezakete), jatorria Argentinan/Txilen/Uruguain, Mendebaldeko EBn, Kolonbian/ Ekuadorren/Perun, Brasilen/Venezuelan/Dominikar Errepublikan edo Txinan dute, pertsona ezkonduak dira, ez dira minoria erlijioso batekoak, unibertsitateko edo Lanbide Heziketako II. mailako ikasketak dituzte, lanbidez zuzendariak, teknikariak edo langileak dira, Espainian 15 urte edo gehiago daramatzate, betitik edo azken 10 urtean gutxienez erroldatuta egon dira eta lan-merkatuan sarbidea izateko aukera ematen dien administrazio-egoera dute (aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin, behin betiko bizileku-baimena edo nazionalizazioa).

Aldiz, integrazio sozialaren prozesuan egoera erlatibo okerrenean daude 16 eta 24 urte bitarteko atzerritarrak, jatorri afrikarra dutenak (Magreb, Senegal edo Saharaz hegoaldeko herrialdeak), ezkongabeak, gutxiengo erlijioso batekoak, ikasketarik gabeak, kualifikazio baxuko lanbidea dutenak, langabezian daudenak edo ez-aktibo direnak, Espainian bi urte baino gutxiago daramatzatenak, erroldatu gabeak edo bost urte baino gutxiago egin dituztenak erroldatuta, eta, haien administrazio-egoera dela medio, lan-merkatuan sartu ezin direnak, ez behintzat araututako merkatuan (egoera irregularra, gerora sortutako egoera

irregularra, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena, asilo-eskatzaileak eta antzeko beste lege-egoera batzuk).

Bereziki interesgarria da Integrazio Sozialaren Indizearen eta atzerritar jatorriko pertsonen jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen[16] artean egin dugun gurutzaketa. Horren bidez, egiazta daiteke desberdintasun esanguratsuak daudela eskualde geografikoen arteko integrazio-mailen artean (0.000 esangura). Eta askotariko alderaketak[17] aplikatzen baditugu, sei azpimultzo desberdin lortuko ditugu, horietako bakoitza osagai homogeneoekin integrazio sozialari dagokionez.

2. taula. Integrazio Sozialaren Indizea jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2	3	4	5	6
Afrikako gainerako herrialdeak	163	-0,4953515					
Magreb	262	-0,3985897	-0,3985897				
Senegal	135		-0,2265528	-0,2265528			
Munduko gainerako herrialdeak	275			-0,1054507	-0,1054507		
Bolivia	159			-0,0253417	-0,0253417		
Paraguai	133				0,059475	0,059475	
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200				0,0668793	0,0668793	
Latinoamerikako gainerako herr.	166				0,0779579	0,0779579	
Txina	134				0,1273898	0,1273898	0,1273898
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207				0,1356303	0,1356303	0,1356303
Kolonbia, Ekuador, Peru	231					0,2397705	0,2397705
Mendebaldeko EB	216					0,2946206	0,2946206
Argentina, Txile, Uruguai	137						0,3677951

Iturria: txostengileak egina

2. taulan, eskualde geografikoen multzo bat nabarmentzen da (6. zutabea); multzo hori osatzen duten eskualdeetako biztanleek dute egoera onena integrazio erlatiboan, Euskadin. Argentinatik/Txiletik/Uruguaitik/Mendebaldeko EBtik/Kolonbiatik/Ekuadortik/Perutik/Brasildik, Venezuelatik, Dominikar Errepublikatik eta Txinatik etorritako pertsonez osatutako multzoa da, eta haien balioak 0,36 eta 0,12 artean daude Integrazio Sozialaren Indizean.

Beste muturrean, Afrikako gainerako herrialdeetatik (Saharaz hegoaldetik, batez ere) eta Magrebtik etorritako pertsonez osatutako eskualde geografikoen multzoa dago (1. zutabea), eta horien balioak Integrazio Sozialaren Indizean -0,39 eta -0,49 artean daude. Ez daude azpimultzo horretatik urrun Senega-

[16] Bariantzaren azterketa sinple bat da, norabide bateko faktore baten ANOVA bat. Ikuspegiren EL proceso de integración del colectivo immigrante en Euskadi (Moreno, koord.) argitalpeneko kapitulu batek (Shershneva et al., 2018) jatorriko eskualde geografikoaren araberako atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboen integrazioaren lehen azterketa baten hurbilketa egin zuen.

[17] Scheffé-ren *post hoc* proba aplikatu dugu, bariantzak antzekoak direla onartuz.

len jatorria duten pertsonak (2. zutabea); haiek Integrazio Sozialaren Indizean duten puntuazioaren (-0,22) eta Magrebtik etorritako pertsonek lortutakoaren aldean ez dago desberdintasun esanguratsurik.

Aldagai hori aztertzea besterik ez dago ikusteko atzerritar jatorriko pertsonen kolektibo guztiek ez dutela antzeko integrazio-maila: batzuk besteak baino posizio hobean daude; batzuk aurrerago daude integrazio-prozesuan, eta beste batzuk, atzerago. 2018ko EABIko datuen orokortzaileak[18] erabiliz, integrazio-maila aurreratuenean dauden pertsonen azpimultzoa 65.655 pertsonak osatzen dutela kalkula dezakegu; hau da, atzerritar jatorriko 16 urtetik gorako pertsonen % 39,75ek. Beste muturrean, atzerritar jatorriko 38.374 pertsonak (guztiak afrikar jatorrikoak) osatzen dute integrazio sozialaren prozesuaren fase goiztiarrenean dagoen azpimultzoa; hau da, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako guztien % 23,23k.

Halaber, argi ikusten da kolektibo bera ez dagoela integrazio-egoera berean, baldin aurretik bereizitako integrazio globala osatzen duten zazpi dimentsioei erreparatzen badiegu.

3. taula. Lan-munduan integratzearen indize partziala jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2	3
Afrikako gainerako herrialdeak	163	-0,5253811		
Magreb	262	-0,4991612	-0,4991612	
Munduko gainerako herrialdeak	275	-0,1388881	-0,1388881	-0,1388881
Senegal	135		-0,0357703	-0,0357703
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200			0,0200594
Bolivia	159			0,0222183
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207			0,0553976
Mendebaldeko EB	216			0,1675006
Latinoamerikako gainerako herr.	166			0,2006225
Argentina, Txile, Uruguai	137			0,246084
Paraguai	133			0,2537477
Kolonbia, Ekuador, Peru	231			0,2610942
Txina	134			0,3221681

Iturria: txostengileak egina

Kolektibo berak lan-munduan integrazio altua eta, aldi berean, integrazio komunitario baxua izan ditzake. Ikus dezagun xehetasunez jatorri geografiko bakoitzaren egoera aztertutako zazpi dimentsioetako bakoitzean.

[18]2018ko EABIk orokortzaile edo haztatzaile batzuk ditu, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleei buruzko datuen gutxi gorabeherako kalkuluak egiteko, laginetik lortutako datuetan oinarrituta.

Lan-munduko integrazioaren indize partzialak (3. taula) bereizi gabe uzten ditu atzerriko jatorri ugari. Txinan jatorria duten pertsonak buru dituen azpimultzoak (puntuazio handiena, 0,32, dute txinatarrek arlo horretan, 3. zutabean ikusten den bezala) Kolonbia/Ekuador/Peru/Paraguai eta abar barne hartzen ditu. Beste muturrean, lan-munduko integrazioaren fase goiztiarrean, Afrikako gainerako herrialdeetan (Saharaz hegoaldekoak, Senegal izan ezik) eta Magreben (1. zutabea) jatorria duten pertsonak daude; alde handiak daude pertsona horien lan-munduko integrazioaren balioen (-0,52 eta -0,49 artean) eta lehen deskribatutako azpimultzokoen artean.

4. taula. Gizarte-ongizatean integratzearen indize partziala jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2	3	4	5	6
Afrikako gainerako herrialdeak	163	-0,6447903					
Magreb	262	-0,4566803	-0,4566803				
Senegal	135	-0,2708961	-0,2708961	-0,2708961			
Bolivia	159		-0,1594575	-0,1594575	-0,1594575		
Munduko gainerako herrialdeak	275		-0,0075268	-0,0075268	-0,0075268	-0,0075268	
Latinoamerikako gainerako herr.	166			0,0660517	0,0660517	0,0660517	0,0660517
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207			0,0791628	0,0791628	0,0791628	0,0791628
Kolonbia, Ekuador, Peru	231			0,1332761	0,1332761	0,1332761	0,1332761
Paraguai	133			0,184154	0,184154	0,184154	0,184154
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200				0,2284355	0,2284355	0,2284355
Mendebaldeko EB	216				0,2414628	0,2414628	0,2414628
Argentina, Txile, Uruguai	137					0,3232872	0,3232872
Txina	134						0,4774751

Iturria: txostengileak egina

Gizarte-ongizateko integrazioaren indize partzialak (4. taula) jatorri-multzo garrantzitsu bat biltzen du prozesuaren fase aurreratuenean: Txina (0,47), Argentina/Txile/Uruguai (0,32) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak (0,06). Beste muturrean, berriro ere, Afrikan jatorria duten kolektiboak daude: Senegal, Magreb eta Afrikako gainerako herrialdeak (Saharaz hegoaldeko herrialdeak); herrialde horien balioak -0,27ren eta 0,64ren artean daude. Azken jatorri horiek egoera okerrenean daude gizarte-ongizatean integratzeko prozesuan.

Integrazio sozioekonomikoaren indize partzialak (5. taula) atzerritar jatorriko pertsonen multzoa maila edo balio nahiko desberdinak dituzten zazpi azpimultzotan bereizten du. Integrazio sozioekonomikoaren fase aurreratuenean, berriro ere Txina buru duen jatorri-multzo bat dago, Mendebaldeko EBrekin eta Argentinarekin/Txilerekin/Uruguairekin batera, eta herrialde horietakoen balioak 0,84ren eta 0,42ren artean daude. Beste muturrean, integrazio ekonomikoaren fase goiztiarrenean dagoen multzo bat dugu, eta hor jatorri afrikarreko (Senegal, Magreb eta Afrikako gainerako herrialdeak, Saharaz hegoaldekoak

bereziki) pertsonak ageri dira berriro; pertsona horien balioak -0,55ren eta -0,93ren artean daude.

5. taula. Integrazio sozioekonomikoaren indize partziala jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2	3	4	5	6	7
Afrikako gainerako herrialdeak	163	-0,9384972						
Magreb	262	-0,7420676						
Senegal	135	-0,5591664	-0,5591664					
Bolivia	159		-0,1351369	-0,1351369				
Latinoamerikako gainerako herr.	166			-0,0476191	-0,0476191			
Paraguai	133			0,0066337	0,0066337	0,0066337		
Munduko gainerako herrialdeak	275			0,0423592	0,0423592	0,0423592		
Kolonbia, Ekuador, Peru	231			0,0751669	0,0751669	0,0751669		
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207			0,1188006	0,1188006	0,1188006		
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200				0,3596254	0,3596254	0,3596254	
Argentina, Txile, Uruguai	137					0,4207832	0,4207832	0,4207832
Mendebaldeko EB	216						0,7204614	0,7204614
Txina	134							0,8402788

Iturria: txostengileak egina

6. taula. Integrazio identitarioaren indize partziala jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2	3	4	5	6
Txina	134	-0,7876165					
Afrikako gainerako herrialdeak	163	-0,4781332	-0,4781332				
Senegal	135	-0,3364996	-0,3364996	-0,3364996			
Munduko gainerako herrialdeak	275		-0,3281739	-0,3281739			
Magreb	262		-0,2377421	-0,2377421	-0,2377421		
Bolivia	159			0,0095454	0,0095454	0,0095454	
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200			0,0441451	0,0441451	0,0441451	0,0441451
Paraguai	133				0,1346501	0,1346501	0,1346501
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207				0,192192	0,192192	0,192192
Latinoamerikako gainerako herr.	166					0,304017	0,304017
Kolonbia, Ekuador, Peru	231					0,4107301	0,4107301
Argentina, Txile, Uruguai	137					0,4382389	0,4382389
Mendebaldeko EB	216						0,5000781

Iturria: txostengileak egina

Integrazio identitarioaren indize partzialak (6. taula) berritasun interesgarriak erakusten ditu jatorriek beren *continuum* horretan duten kokapenean, Txina prozesu horren atzean, fase goiztiarrenean, baitago, eta multzo bat osatzen du Senegalen eta Afrikako gainerako herrialdeetan (Saharaz hegoaldeko herrialdeak) jatorria duten herrialdeekin; herrialde horien balioak -0,78ren eta -0,33ren artean daude. Integrazio identitarioaren faserik aurreratuenean, bestalde, balio altuenak dituen jatorri ugariko multzo bat dago. Mendebaldeko EB, Argentina/Txile/Uruguai, Kolonbia/Ekuador/Peru, Latinoamerikako gainerako herrialdeak, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika, Paraguai, Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk dira, eta haien balioak 0,50en eta 0,04ren artean daude.

7. taula. Herritar gisa integratzearen indize partziala jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2	3	4	5	6
Senegal	135	-0,4970147					
Txina	134	-0,4174129					
Afrikako gainerako herrialdeak	163	-0,3412881	-0,3412881				
Munduko gainerako herrialdeak	275	-0,3307916	-0,3307916				
Magreb	262	-0,3234983	-0,3234983				
Paraguai	133	-0,3219436	-0,3219436				
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200	-0,2121525	-0,2121525	-0,2121525			
Latinoamerikako gainerako herr.	166		0,0625992	0,0625992	0,0625992		
Mendebaldeko EB	216			0,211107	0,211107		
Bolivia	159				0,2717738	0,2717738	
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207				0,3378655	0,3378655	
Kolonbia, Ekuador, Peru	231					0,6944331	0,6944331
Argentina, Txile, Uruguai	137						0,8034941

Iturria: txostengileak egina

Herritar gisa integratzearen indize partziala (7. taula) nazionalitatea eta administrazio-egoera eskuratzeko baldintza objektiboetan oinarritzen da, batez ere, eta herritartasunarekin lotutako integrazioan[19] fase goiztiarrean dagoen jatorri ugariko multzo bat bereizten du. Talde horretan daude, besteak beste, Senegal, Txina, Afrikako gainerako herrialdeak (Saharaz hegoaldekoak), munduko gainerako herrialdeak, Magreb, Paraguai, Errumania eta Ekialdeko EB; horien balioak -0,49ren eta -0,22ren artean daude. Beste muturrean, beste jatorri batzuk ageri dira, hala nola Argentina/Txile/Uruguai eta Kolonbia/Ekuador/Peru, 0,80ren eta 0,64ren arteko balioekin.

[19]Herritartasunean integratzeko fase goiztiarrean egoteak ez du beti esan nahi egonaldia laburra izango dela.

8. taula. Integrazio komunitarioaren indize partziala jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2
Txina	134	-0,2783053	
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200	-0,1403557	-0,1403557
Paraguai	133	-0,1129696	-0,1129696
Bolivia	159	-0,1034816	-0,1034816
Latinoamerikako gainerako herr.	166	-0,0697306	-0,0697306
Magreb	262	-0,0695607	-0,0695607
Kolonbia, Ekuador, Peru	231	-0,0359498	-0,0359498
Munduko gainerako herrialdeak	275	0,0271236	0,0271236
Afrikako gainerako herrialdeak	163	0,0801267	0,0801267
Mendebaldeko EB	216	0,0983555	0,0983555
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207	0,1464529	0,1464529
Argentina, Txile, Uruguai	137		0,2201868
Senegal	135		0,2422324

Iturria: txostengileak egina

Integrazio komunitarioaren indize partzialean (8. taula) ia ez dago desberdintasunik atzerritar jatorriko pertsonen jatorrien artean, jatorriko eskualdeen artean ikusten direnak izan ezik: alde batetik, integrazio komunitarioaren fase goiztiarrenean Txina ageri da (-0,27ko balioa), eta beste muturrean, Senegal eta Argentina/Txile/Uruguai nabarmentzen dira, 0,24tik 0,22ra bitarteko balioekin.

9. taula. Itxaropenetan integratzearen indize partziala jatorriko herrialdea dagoen eskualdearen arabera

		1	2	3
Latinoamerikako gainerako herr.	166	-0,4178083		
Senegal	135	-0,3305775	-0,3305775	
Paraguai	133	-0,3025147	-0,3025147	
Afrikako gainerako herrialdeak	163	-0,152191	-0,152191	-0,152191
Bolivia	159	-0,1284308	-0,1284308	-0,1284308
Errumania eta Ekiald. EBko beste	200		0,0716887	0,0716887
Magreb	262		0,0787205	0,0787205
Kolonbia, Ekuador, Peru	231		0,0812133	0,0812133
Txina	134		0,0862135	0,0862135
Mendebaldeko EB	216		0,1020383	0,1020383
Munduko gainerako herrialdeak	275		0,1063298	0,1063298
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	207			0,2256553
Argentina, Txile, Uruguai	137			0,2640817

Iturria: txostengileek egina

Azkenik, etorkizuneko itxaropenen indize partzialaren datuetan (9. taula) ere ez da desberdintasun handirik ikusten, baina badaude batzuk: fase goiztiarrenean (ez geratzeko asmo handia eta integrazio txikia adierazten du) zenbait jatorritako

eskualdeak daude, hala nola Latinoamerikako gainerako herrialdeak (Erdialdeko Amerika, batez ere), Senegal eta Paraguai, -041etik -0,30ra bitarteko balioekin; fase aurreratuenean, berriz, bizi-proiektua Euskadin jarraitzeko asmo handiarekin eta, beraz, integrazio-adierazle onarekin, Argentina/Txile/Uruguai eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika daude, 0,24tik 0,22ra bitarteko balioekin. Komeni da nabarmentzea azken multzo horren eta beste jatorri askoren (munduko gainerako herrialdeak, Mendebaldeko EB, Txina, etab.) arteko aldeak ere ez direla esanguratsuak.

Etorkinen jatorrizko eskualdearen aldagaia aztertzea nahikoa izan da agerian uzteko kolektiboen integrazio sozialaren prozesuak duen izaera asimetrikoa, bai eta pertsonen talde edo kolektibo berak integrazio-maila desberdinak lortzen dituela ere dimentsioaren arabera. Hasteko, bost elementu interesgarri hauek nabarmenduko ditugu:

1. Afrikar jatorriko kolektiboak integrazio-fase goiztiarrenean daude, pertsonen ongizate materialari eragiten dioten dimentsioetan, batez ere; hau da, lan-munduan eta ongizatean integratzean eta integrazio sozioekonomikoan. Baina jatorri horien integrazio identitarioan ere gabeziak ikusten dira, eta zailtasunak dituzte herritar gisa integratzeko.

2. Saharaz hegoaldetik etorritako pertsonen (Senegaletik, batez ere, baina Afrikako gainerako herrialdeetatik ere bai) dimentsio komunitarioan, bestalde, baieztatu egiten da jendeari ezaguna egiten zaion berezitasun bat, integrazio-maila garrantzitsua baitute.

3. Mendebaldeko EBn eta Latinoamerikako herrialde batzuetan (Argentina/Txile/Uruguai, Kolonbia/Ekuador/Peru eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika) jatorria duten kolektiboek, sarritan, integrazio-fase aurreratua dute, hala alderdi materialetan (lanbidea, ongizatea, ekonomia), nola sinbolikoetan (identitarioa, komunitarioa, itxaropenak) eta administratiboetan (herritar-eskubideak). Jatorri horietakoak ziren, hain zuzen, Euskadira etorri ziren lehen etorkinak.

4. Txinan jatorria duten pertsonen kolektiboan anbibalentzia ikusten da: alde batetik, integrazio aurreratua du alderdi materialetan (lanean, ongizatean eta arlo sozioekonomikoan); bestetik, gabezia garrantzitsuak ditu beste dimentsio batzuetan: besteak beste, herritar gisa integratzeko eta integrazio identitarioan eta komunitarioan.

5. Aztertutako atzerritar jatorriko gainerako kolektiboetako bakoitzak (Bolivia, Paraguai, Errumania eta Ekialdeko EBko gainerako herrialdeak, Latinoamerikako eta munduko gainerako herrialdeak) bere berezitasunak eta posizioak ditu aztertutako dimentsioetan. Kolektibo bakoitzak du bere

jokabide-profila, eta ez datoz bat aurreko lau puntuetan deskribatutako ezaugarri orokorrekin.

Datu horiek guztiek ondorio bera ateratzera eraman gaituzte: ez daude prozesu komunak eta homogeneoak etorkin guztien akulturazioan eta integrazio sozialean. Bakoitzak bere gizarte-kategoriak ditu eta bere prozesuari jarraitzen dio, eta kategoria horien arteko antzekotasunei eta ezaugarri komun biografikoei esker ezar ditzakegu integrazio sozialaren dimentsioetan aurrera edo atzera, erritmo asimetrikoekin, egiten duten pertsonen taldeak, konglomeratuak, segmentuak eta tipologiak.

Integrazio sozialaren fase desberdinetan dauden atzerritar jatorriko biztanleen tipologiak

Alabaina, egin berri dugun azterketak ez du aukera ematen aldagai soziodemografikoen artean egon daitezkeen loturak ezartzeko, azterketa deskriptiboa eta bi aldagaikoa baino ez baita (hau da, bi aldagairen analisi estatistikoa egiten du, elkarren arteko lotura jakiteko), eta horrek errealitatea ezkuta eta sinplifika dezake. Ikusi dugu, esaterako, sexuaren aldagaiak ez duela lotura esanguratsurik aztertutako lagineko integrazio-mailan, baina, hurrengo azterketan ikusiko dugun bezala, atzerritar jatorriko biztanleriaren segmentuen edo profilen ezaugarrien azterketa tipologikoan sakontzen dugunean, aldagai horrek balio handia du profil edo segmentu horietako batzuetan bereizteko, profil horietako emakumeak gizonak baino okerrago daudela nabarmentzen baitu. Ikusi dugu, halaber, jatorriko eskualde geografikoa adierazten duen aldagaia integrazio sozialaren maila handiagoarekin edo txikiagoarekin lotuta dagoela; dena dela, jatorriaren arabera sailkatutako pertsona-azpimultzo horiek homogeneoak ez direla ere badakigu, bai eta jatorri bereko pertsona guztiek ez dutela zertan prozesuaren fase berean egon ere.

Deskribatutako profiletan sakontzeko, aldagai askoko azterketa bat egin dugu, Interakzioen Detektagailu Automatikoa (AID)[20] deritzona. Gure kasuan, teknika horrek, segmentazio-zuhaitz baten bitartez, atzerritar jatorriko pertsonen multzoa segmentutan edo tipologiatan bereiziko du. Segmentu edo tipologia horiek

[20]AID analisia (*Automatic Interaction Detection*) aldagai anitzeko metodologia bat da; bariantzaren azterketa sinplean oinarritzen da, baina bata bestearen segidan egiten denean. Aldagai anitzeko teknika edo metodologia hori mendekotasun-tekniken artean sailkatzen da; izan ere, mendeko aldagai baten eta aldagai independente multzo baten artean bereiziko duen analisi-eredu bat behar du. Lehena zenbakizko aldagaia da (arrazoia edo tarteak ditu), eta bigarrenak, berriz, aldagai nominalak edo kategoria-aldagaiak dira. Teknika honen helburua zenbait kasu-tipologia ezartzea da, segmentazio- edo erabaki-zuhaitz deritzona (*answer tree*) garatzearen bitartez. Escobar-en argitalpenetan (1998, 2007) aldagai anitzeko metodologia horri buruzko oso azalpen errazak daude.

ezaugarri soziodemografiko desberdinak eta integrazio-prozesuan egoera desberdinak dituzten pertsonez osatuta egongo dira. Bereizketa hori egiteko, aldagarritasun handiena azaltzen duten aldagai haietan oinarrituko gara; hau da, aldagai horien kategorietatik gehien bereizten dutenetan.

Gure azterketa garatzean, Integrazio Sozialaren Indizea mendeko aldagaia izan da, eta aldagai independentetzat, berriz, lehenago aipatu ditugun haiek erabili ditugu, bi aldagairen arteko loturak jakiteko aztertu ditugunak, alegia: sexua, adina, nazionalitatea, jatorriko eskualde geografikoa, egoera zibila, minoriaren bateko kide izatea, ikasketa-maila, lanbidea, jarduera, Espainiara etorri zenetik egindako denbora, erroldatuta daraman denbora eta administrazio-egoera.

Aldagai anitzeko azterketa honi esker, integrazio sozialaren prozesuan egoera onenetan eta txarrenetan dauden pertsonen profiletan sakondu ahal izango dugu, eta zehatzagoak izango gara ateratzen zaizkigun tipologietan. Gainera, integrazio sozialaren prozesuko posizio erlatibo hobearen edo txarragoaren aldagai iragarleen zerrenda hierarkizatua ere emango digu azterketak.

Ateratzen den segmentazio-zuhaitzak ezaugarri soziodemografiko desberdinak eta/edo integrazio sozialean maila desberdinak dituzten atzerritar jatorriko pertsonen 25 tipo edo segmentu eman dizkigu, guztira, 11. grafikoan ikusten den bezala.

Grafiko horretatik, gainera, aldagai iragarleak atera ditzakegu; hau da, kolektibokoen artean gehien bereizten duten eta atzerritar jatorriko pertsonak zer integrazio-fasetan dauden ondoen iragar dezaketen aldagaiak. Garrantzi handienetik txikienera, ahalmen iragarle handienetik txikienera, aldagai hauetan oinarritu gara gure zuhaitza egiteko:

1. Lehen maila: *lotura jarduerarekin* aldagaiak du pertsonen integrazio sozialaren maila[21] esplikatzeko ahalmenik handiena, integrazio sozialaren prozesuaren faseen artean gehien bereizten duen aldagaia baita (esangura: 0.000).

[21] AID aplikatu izanak kolektiboaren guztizko aldagarritasuna murriztu du, eta bereizi egin ditu taldeen arteko aldagarritasuna (tipo edo segmentu desberdinen artean dagoena; hau da, aldagai independenteen bidez azaltzen dugun bariantza) eta talde barneko aldagarritasuna (segmentu edo tipo bateko kideen artean gertatzen jarraitzen duen integrazio desberdina; hau da, aldagai independenteen bidez azaldu ezin dugulako irauten duen azken bariantza). Hasierako bariantza edo aldagarritasuna eta talde barneko azkena kontuan hartuta, egiaztatu dugu azken hori % 46,15ekoa dela; horrek adierazten digu gure eredua guztizko bariantzaren % 53,85 azaltzeko gai dela. Analisiaren alde ona hau da: gure eredua gai da azaltzeko atzerritar jatorriko pertsonen egoeran eta integrazio sozialaren prozesuan gertatzen den aldagarritasunaren erdia baino gehiago. Alde ez hain ona, berriz, beste hau da: analisi honetan kontuan hartzen ez diren aldagai gehiago daude integrazio sozialaren prozesuan egoera hobea edo txarragoa izatearekin lotura dutenak, eta horrek ikertzen jarraitzera gonbidatzen gaitu, beste aldagaiak hurrengo ikerketetan sartu ahal izateko.

2. Bigarren maila: bigarren mailako garrantzia dute *administrazio-egoerak* (esangura: 0.000) eta *jatorriko eskualde geografikoak* (bi aldiz), zuhaitzaren bi adarretan bereizten baitu (esangura bietan: 0.000).

3. Hirugarren maila: maila honetan berriro ageri da bi aldiz *jatorriko eskualde geografikoa* (esangurak: 0.000 eta 0.003); *nazionalitatea* hiru aldiz (guztietan 0.000 da esangura) ageri da, eta *administrazio-egoera*, behin (esangura: 0.000).

4. Laugarren maila: laugarren mailako garrantzia dute beste aldagai batzuek, hala nola *lotura jarduerarekin* aldagaiak –lehenago elkartu dituen kategoriak bereizten ditu– (esangura: 0.000), *sexua* aldagaiak bi aldiz (esangurak: 0.011 eta 0.014), *minoriaren bateko kide izatea* aldagaiak bi aldiz (esangurak: 0.004 eta 0.001), eta *ikasketa-maila* aldagaiak (esangura: 0.036).

5. Bosgarren maila: azkenik, maila honetan *ikasketa-maila* besterik ez dago (esangura: 0.008).

Jokabidearen aldagai iragarle horiek eragiten dute, beren ahalmen bereizlearen bidez, 4. grafikoko segmentazio-zuhaitzaren eraikuntza. Zuhaitz horretan, integrazio sozial handienetik txikienera arteko tipo edo segmentu guztiak ordenatu ditugu, honako hauek azpimarratuz: integrazio sozialaren faserik aurreratuenean daudenak, zenbaki berde ordinalekin (integrazioan balio handienak dituzte); urdinez jarri ditugu integrazioaren tarteko fasean daudenak (aztertutako laginaren guztizkoaren batez besteko portaeraren inguruko balioak dituzte), eta more biziagoz edo hilagoz, berriz, integrazio sozialaren mailan balio txikienak dituztenak.

Hauek dira 25 segmentuen ezaugarriak[22], integrazio handienetik txikienera ordenatuta:

- 1. tipoa: gutxienez Espainiako nazionalitatea duten eta jatorriz EBkoak edo Argentinakoak/Txilekoak/Uruguaikoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Ondoen integratuta dagoen taldea da (0,578ko balioa). 5.408 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,3, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

[22] 4. grafikoko segmentuetako bakoitzeko datuak eta testuan adierazitakoak ez datoz bat, segmentazio-zuhaitza lortzeko jatorrizko lagineko datu-basea baliatu baitugu, xede izanik bazterketak ez desitxuratzea segmentazio-estatistikak aplikatzean; segmentuak testuan deskribatzeko, berriz, lortutako 25 segmentuei jasokariak aplikatu dizkiegu, eta euskal herritarrentzat balioetsitako datuak dira.

- 2. tipoa: gutxienez Espainiako nazionalitatea duten eta jatorriz Kolombiakoak/Ekuadorkoak/Perukoak eta Brasilgoak/Venezuelakoak/Dominikar Errepublikakoak diren gizon landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,494ko balioa). 6.593 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 4, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 3. tipoa: nazionalizatuta dauden eta jatorriz Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika), Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, munduko gainerako herrialdeetakoak eta Txinakoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,473ko balioa). 6.514 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,9, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 4. tipoa: atzerritar nazionalitatea duten eta jatorriz Mendebaldeko EBkoak eta Argentinakoak/Txilekoak/Uruguaikoak diren gizon landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,425eko balioa). 6.182 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,7, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 5. tipoa: gutxienez Espainiako nazionalitatea duten eta jatorriz Kolombiakoak/Ekuadorkoak/Perukoak eta Brasilgoak/Venezuelakoak/Dominikar Errepublikakoak diren emakume landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,379ko balioa). 14.012 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 8,5, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 6. tipoa: gutxienez Espainiako nazionalitatea izanik, lehen mailako, lanbide heziketako edo unibertsitateko ikasketak dituzten eta jatorriz Magrebkoak, Boliviakoak edo Paraguaikoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,318ko balioa). 4.356 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,6, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 7. tipoa: atzerritar nazionalitatea duten Mendebaldeko EBko eta Argentinako/Txileko/Uruguaiko emakume landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,291ko balioa). 3.689 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,2, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

10. taula. Segmentazio-zuhaitzaren segmentuen edo tipoen tamaina, behin EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleria osora orokortu eta gero

Integrazio Sozialaren fasea	Tipologia	Maiztasuna	%	Integrazio Soziala
Aurreratua	1	5.408	3,9	0,578
	2	6.593	2,2	0,494
	3	6.514	3,0	0,473
	4	6.182	2,0	0,425
	5	14.012	2,5	0,379
	6	4.356	7,5	0,318
	7	3.689	5,5	0,291
	8	9.321	3,5	0,268
	9	6.910	3,3	0,216
	10	5.840	3,9	0,198
Tartekoa	11	6.436	4,4	0,133
	12	4.726	4,2	0,105
	13	12.031	5,3	0,082
	14	5.453	2,3	0,079
	15	7.208	3,7	0,03
	16	3.940	2,2	-0,114
	17	3.626	3,3	-0,116
	18	9.083	7,3	-0,118
Goiztiarra	19	12.412	2,4	-0,222
	20	4.995	2,6	-0,292
Oso goiztiarra	21	8.812	2,9	-0,522
	22	3.336	4,0	-0,612
	23	3.818	8,5	-0,85
	24	4.067	5,6	-0,98
	25	6.382	3,9	-1,046
	Guztira	165.153	100,0	

Iturria: 2018ko EABI eta txostengileek egina

- 8. tipoa: jatorriz Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika), Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, munduko gainerako herrialdeetakoak eta Txinakoak diren pertsonaz osatutako taldea da. Pertsona horien administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena edo beste egoera erregularren bat dute; bestalde, ez dira inolako minoriatako kide eta bigarren mailako ikasketak, Lanbide Heziketako lehen mailakoak edo unibertsitatekoak dituzte. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,268ko balioa). 9.321 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 5,6, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 9. tipoa: atzerritar nazionalitatea duten eta jatorriz Kolonbiakoak/Ekuadorkoak/Perukoak eta Brasilgoak/Venezuelakoak/Dominikar Errepublikakoak

diren pertsona landun edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,216ko balioa). 6.910 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 4,2, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 10. tipoa: Espainiako nazionalitatea duten eta jatorriz Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, Argentinakoak/Txilekoak/Uruguaikoak edo Kolombiakoak/Ekuadorkoak/Perukoak diren pertsona langabeez, langabe egon daitezkeenez, lan bila ez dabiltzanez edo etxeko lanak egiten dituztenez osatuta dago. Integrazio sozialaren fase aurreratuan dago talde hau ere (0,198ko balioa). 5.840 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,5, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 11. tipoa: jatorriz Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika), Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, munduko gainerako herrialdeetakoak eta Txinakoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatutako taldea da. Pertsona horien administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena edo beste egoera erregularren bat dute; bestalde, ez dira inolako minoriatako kide, eta ez dute ikasketarik, edo lehen mailako edo Lanbide Heziketako bigarren zikloko ikasketak dituzte. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau (0,133ko balioa). 6.436 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,9, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 12. tipoa: gutxienez Espainiako nazionalitatea izanik, bigarren mailako ikasketak edo ikasketarik ez duten eta jatorriz Magrebkoak, Boliviakoak edo Paraguaikoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau ere (0,105eko balioa). 4.726 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,9, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 13. tipoa: atzerritar nazionalitatea izanik, minoria bateko kide ez diren (edo minoria kultural batekoak dira) eta jatorriz Magrebkoak, Senegalgoak, Boliviakoak edo Paraguaikoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau ere (0,082ko balioa). 12.031 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 7,3, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 14. tipoa: jatorriz Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika), Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, munduko gainerako herrialdeetakoak eta Txinakoak diren pertsona landunez edo erretiratuz

osatuta dago. Pertsona horien administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena edo beste egoera erregularren bat dute; bestalde, minoria kultural, etniko edo erlijioso batekoak dira. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau ere (0,079ko balioa). 5.453 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,3, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 15. tipoa: jatorriz Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika), Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, munduko gainerako herrialdeetakoak eta Txinakoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Pertsona horien administrazio-egoerari dagokionez, egoera irregularrean daude edo aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin dute. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau ere (0,030eko balioa). 7.208 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 4,4, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 16. tipoa: atzerritar nazionalitatea izanik, minoria erlijioso edo etniko bateko kide diren eta jatorriz Magrebkoak, Senegalgoak, Boliviakoak edo Paraguaikoak diren pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau ere (-0,114ko balioa). 3.940 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,4, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 17. tipoa: jatorriz Afrikako gainerako herrialdeetakoak diren (Saharaz hegoaldekoak) pertsona landunez edo erretiratuz osatuta dago. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau ere (-0,116ko balioa). 3.626 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,2, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 18. tipoa: Espainiako nazionalitatea duten eta jatorriz Mendebaldeko Europakoak, Brasilgoak/Venezuelakoak/Dominikar Errepublikakoak, Boliviakoak, Paraguaikoak, Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika) Magrebkoak, Senegalgoak, Afrikako gainerako herrialdeetakoak (Saharaz hegoaldekoak) eta munduko gainerako herrialdeetakoak diren pertsona langabeez, langabe egon daitezkeenez, lan bila ez dabiltzanez edo etxeko lanak egiten dituztenez osatuta dago. Integrazio sozialaren tarteko fasean dago kolektibo hau ere (-0,118ko balioa). 9.083 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 5,5, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

4. grafikoa. Segmentazio-zuhaitza eta tipologiak



(Ikusi erantsitako grafikoa)

Iturria: txostengileak egina

- 19. tipoa: jatorriz Mendebaldeko EBkoak, Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, Txinakoak, Argentinakoak/Txilekoak/Uruguaikoak, Kolonbiakoak/Ekuadorkoak/Perukoak, Boliviakoak, Paraguaikoak, Brasilgoak/Venezuelakoak/Dominikar Errepublikakoak eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak (Erdialdeko Amerika) diren pertsona langabeez, langabe egon daitezkeenez, lan bila ez dabiltzanez edo etxeko lanak egiten dituztenez osatuta dago. Administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra dute, edo aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin. Integrazio sozialaren fase goiztiarrean dago kolektibo hau (-0,222ko balioa). 12.412 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 7,5, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 20. tipoa: jatorriz Mendebaldeko EBkoak, Txinakoak, Argentinakoak/Txilekoak/Uruguaikoak, Kolonbiakoak/Ekuadorkoak/Perukoak, Paraguaikoak, Brasilgoak/Venezuelakoak/Dominikar Errepublikakoak eta Senegalgoak diren ikasleez edo beste lanbide ez-aktibo batzuk dituzten pertsonez osatuta dago. Integrazio sozialaren fase goiztiarrean dago kolektibo hau ere (-0,292ko balioa). 4.995 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,3, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 21. tipoa: jatorriz Magrebkoak, Senegalgoak, Afrikako gainerako herrialdeetakoak (Saharaz hegoaldekoak) eta munduko gainerako herrialdeetakoak diren pertsona langabeez, langabe egon daitezkeenez edo lan bila ez dabiltzanez osatuta dago. Administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra dute, edo aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin. Integrazio sozialaren fase oso goiztiarrean dago kolektibo hau (-0,522ko balioa). 8.812 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 5,3, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 22. tipoa: jatorriz Errumaniakoak eta Ekialdeko EBkoak, Boliviakoak, Latinoamerikako gainerako herrialdeetakoak eta munduko gainerako herrialdeetakoak diren ikasleez edo beste lanbide ez-aktibo batzuk dituzten pertsonez osatuta dago. Integrazio sozialaren fase oso goiztiarrean dago kolektibo hau ere (-0,612ko balioa). 3.336 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,0, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 23. tipoa: etxeko lanak egiten dituzten eta jatorriz Magrebkoak, Senegalgoak, Afrikako gainerako herrialdeetakoak (Saharaz hegoaldekoak) eta munduko gainerako herrialdeetakoak diren pertsonez osatuta dago. Administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra dute, edo aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin. Integrazio sozialaren fase oso

goiztiarrean dago kolektibo hau ere (-0,850eko balioa). 3.818 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,3, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 24. tipoa: jatorriz Magrebkoak eta Afrikako gainerako herrialdeetakoak (Saharaz hegoaldekoak) diren ikasleez edo beste lanbide ez-aktibo batzuk dituzten pertsonez osatuta dago. Integrazio sozialaren fase oso goiztiarrean dago kolektibo hau ere (-0,980ko balioa). 4.067 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 2,5, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

- 25. tipoa: pertsona langabeez, langabe egon daitezkeenez, lan bila ez dabiltzanez edo etxeko lanak egiten dituztenez osatuta dago. Administrazio-egoerari dagokionez, irregularra da, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena dute edo beste egoera erregular batzuetan daude. Integrazio sozialaren fase oso goiztiarrean dago kolektibo hau ere (-1,046ko balioa). 6.382 pertsona inguru dira, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 3,9, behin lagina euskal biztanleria osora orokortu eta gero (ikus 10. taula).

Estatistikoki, integrazio sozial maila eta/edo ezaugarri soziodemografiko desberdinak dituzten 25 pertsona tipo edo segmentu bereizi ditugu, baina, egiaz, tipo horiek lau fase bereizitan koka daitezkeela ondoriozta daiteke, 10. taulan aurreratu dugun bezala (segmentu bakoitzekoak 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko zenbat pertsona diren jasotzen du taula horrek, behin lagineko datuak unibertsoaren edo populazio osoaren datuetara orokortzen dituen 2018ko EABIren haztapena aplikatu ondoren). Hartara, 10. taulako 25 tipoak multzotan banatu ditugu, azpimultzo bera osa dezaten integrazioan antzeko balioak dituzten tipoek. Beraz, lau fase desberdin bereizi ahal izango ditugu prozesu horretan.

11. taula. EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua, integrazio sozialaren fasearen arabera

Fasea Integrazio Sozialean	Maiztasuna	Ehunekoa	Ehuneko metatua	Integrazio Soziala
Aurreratua	68.826	41,7	41,7	0,348
Tartekoa	52.504	31,8	73,5	0,006
Goiztiarra	17.407	10,5	84,0	-0,269
Oso goiztiarra	26.416	16,0	100,0	-0,761
Guztira	165.153	100,0		

Iturria: 2018ko EABI eta txostengileak egina

11. taulan ikusten den bezala, fase aurreratuan dauden pertsonen batura 68.826 da, guztira, eta EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen % 41,7 dira. Azterketa horren arabera, 52.504 pertsona tarteko fasean

daude (% 31,8). Fase goiztiarrean, berriz, 17.407 pertsona daude, guztizkoaren % 10,5; eta, azkenik, 26.416 pertsona daude integrazio-prozesuaren fase oso goiztiarrean; hau da, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen % 16. Ikuspuntu estatistikotik, esanguratsuak dira (esangura: 0.000) lau pertsona-multzo horiek Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoan dituzten balioen arteko desberdintasunak.

Azken multzoari, *integrazio-maila oso goiztiarra* izena eman diogun horretan dauden bost segmentuak biltzen dituenari, erreparatzen badiogu, ikusiko dugu ezaugarri komun hauek dituztela: pertsona ez-aktiboz osatuta daude, dela langabezian daudelako, dela lan bila ez dabiltzalako, dela ikasleak direlako, dela etxeko lanak egiten dituztelako, etab. Hau da, independentzia ekonomikorik ez duten pertsonak dira. Gainera, segmentuetako hiru Afrikan jatorria duten pertsonez osatuta daude.

Zerbait gehiago ere jakin dezakegu lau multzo horiei buruz, bakoitza dagoen integrazio sozialaren prozesuko fasearen arabera. Multzo horien integrazio sozialaren fasea zenbait aldagairekin gurutzatzen badugu (hala nola zailtasun ekonomikoak izatea, gabezia larriak jasan izana, bizi diren etxebizitzaren egoera eta ekipamendu orokorra, eta familiaren pobreziaren pertzepzio subjektiboa), ikusiko dugu jokabide-lotura eta -desberdintasun esanguratsuak daudela lau aldagaietan.

Hala, integrazio sozialaren fase aurreratuko segmentuz osatutako multzoak lotura esanguratsua du zailtasun ekonomikorik ez izatearekin (multzo horretako % 61,3), gabezia larririk pairatu ez izanarekin (% 70,5), maila egokiko etxebizitza batean bizitzearekin (% 66,8) eta norberaren familiaren estatusa erosoa, batezbestekoaren gainekoa edo aberatsa dela ustearekin (% 45,1).

Multzoen integrazioa txikiagoa den neurrian, egoera negatiboetara hurbiltzen gara nabarmen; hala, integrazio sozialaren fase oso goiztiarrean daudenen multzoak lotura esanguratsua du oinarrizko elikadura-, jantzi-, oinetako- eta etxebizitza-premiak betetzeko zailtasun ekonomikoak izatearekin (% 46,8), dimentsio anitzeko gabeziaren bat pairatu izanarekin (% 37,1), akatsak dituen edo hobetu daitekeen etxebizitza batean bizitzearekin (% 56,1) eta norberaren familia behartsua edo oso behartsua dela ustearekin (% 38,1). Kopuru horiek oso argi ageri dira 12., 13., 14. eta 15. tauletan, non moreaz nabarmendu ditugun egoera negatiboak, eta berdez, positiboak.

12. taula. EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua, integrazio sozialaren fasearen arabera. 2018ko EABI (%)

	Fasea Integrazio Sozialean				
Zailtasun ekonomikoak	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Premietarako (elikadura, jantzi-oinetakoak eta etxebizitza)	13,4	26,8	29,7	46,8	24,8
Ustekabeko gastuei aurre egiteko	25,3	34,5	27,1	36,8	30,2
Zailtasunik gabe	61,3	38,6	43,2	16,4	45,0
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

13. taula. EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua, integrazio sozialaren fasearen arabera. 2018ko EABI (%)

	Fasea Integrazio Sozialean				
Gabezia-egoera larriak	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Dimentsio anitzekoa, oinarrizko alderdiak	8,9	17,9	18,2	37,1	17,3
Partziala, oinarrizko alderdietan	20,5	24,6	23,3	26,3	23,1
Gabeziarik ez edo ez-larriak	70,5	57,5	58,4	36,6	59,7
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

14. taula. EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua, integrazio sozialaren fasearen arabera. 2018ko EABI (%)

	Fasea Integrazio Sozialean				
Etxebizitzaren egoera	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Ez, ez da nahikoa	2,3	5,4	4,3	11,6	5,0
Maila onargarria du, baina hobetu daiteke	30,9	37,6	38,1	44,5	36,0
Bai, maila egokia du	66,8	56,9	57,5	43,9	59,0
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

15. taula. EAEko 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua, integrazio sozialaren fasearen arabera. 2018ko EABI (%)

	Fasea Integrazio Sozialean				
Pobrezia-Aberastasuna	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Oso pobrea	0,2	1,2	1,0	7,1	1,7
Pobrea	2,5	7,7	8,3	14,9	6,7
Pobre samarra	4,5	10,4	9,1	16,1	8,7
Moldatuz, batezbestekoaren azpitik	47,8	52,5	53,7	50,3	50,3
Batezbestekoaren gainetik, eroso	36,5	25,3	21,5	10,9	27,2
Oparoa, aberatsa, diruduna	8,6	2,9	6,3	0,7	5,3
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

Datu horiek agerian jartzen dute lehendik ere bagenekien zerbait, datu enpiriko kuantitatiboen bidez frogatu ezin bagenuen ere: integrazio sozial txikiena edo handiena izatea (lanean, gizarte-ongizatean, ekonomian, identitatean, herritartasunean, komunitatean eta itxaropenetan) oso nabarmen dagoela lotuta atzerritar jatorriko pertsonen eguneroko bizimoduko maila materialekin. Pertsona horien integrazio soziala azkartzen eta errazten dugun neurrian, haien maila materiala igotzea lortuko dugu, eta bizimodu duina eraman ahal izango dute gure artean.

Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoaren azterketak informazio asko eman digu jadanik 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozial globalaren erritmo asimetrikoari eta bereiziari buruz. Informazio hori guztia elementu bikoitz baten gainekoa da: alde batetik, atzerritar jatorriko pertsonek prozesu horretan eta prozesuaren dimentsioetan aurrera egiteko duten ahalmenaren gainekoa; bestetik, euskal jatorriko pertsonek egozten dieten euskal gizartean integratzeko asmoaren gainekoa. Identitatearen jokoa da: "gainerakoek pentsatzen (baieztatzen edo ezeztatzen) dutena naiz ni, gutxi gorabehera".

Elementu bikoitz hori atzerritar jatorriko pertsonei buruz Donostiako biztanleek zituzten irudi desberdinak ezarri genituenean ere sortu zen, Donostiako Udalarentzat egindako ikerketa kualitatibo batean (Oleaga, 2007)[23]. Bi dimentsioko elementu horrek atzerritar jatorriko pertsonek euskal gizartearekiko duten

[23]Donostiako Udalarentzat 2006. urtearen amaieran egindako ikerketa kualitatiboa da. Ikerketak, Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiaren Barometroak erabilitako Donostiako laginaren ustiapena egiteaz gain, zenbait eztabaida-talde antolatu zituen, Donostiako biztanleek atzerritar jatorriko biztanleen etorrera nola ikusten zuten jakiteko. Jatorri desberdinetako pertsonei buruz zituzten ideiei buruz sakondu zuten taldeek, eta, korrespondentzia sinpleen faktore-analisi baten bidez, ezarri zuten irudi horren lehen dimentsio bereizlea bi elementu hauetaz konposatuta zegoela: alde batetik, Donostiako biztanleek atzerriko pertsonei egozten zieten integratzeko asmoaren pertzepzioaz;

distantzia kulturalera eraman gintuen berehala; izan ere, gure kulturatik urrunen dauden jatorri kulturaletatik (hizkuntzan, erlijioan, ohituretan, tradizioetan, familia-roletan, mundu ikuskeran, baliotan, etab.) etorritako pertsonek dituzte zailtasun handienak eta ahalmen txikienak integrazio-prozesuan aurrera egiteko; gainera, horrekin batera, euskal gizarteak integratzeko asmo txikiagoa egozten die, urruntasun kultural horixe dela eta. Jatorri horiek, gure kasuan, Magrebko eskualdea, Saharaz hegoaldeko Afrika eta Txina (Asia) dira, baina Ekialdeko Europako jatorriak ere izan daitezke, herri ijitoaren faktore etnikoa gehitzen diogunean.

Aitzitik, jatorri kultural hurbila duten pertsonei euskal gizarteak integratzeko interes handiagoa egozten die, eta, gainera, ahalmen handiagoa dute gauzatzeko. Gizarte hartzailearen hizkuntza (haietako bat, behintzat), erlijioa, balioak, ohiturak, historia eta abar partekatzen dituzten jatorriak dira. Mendebaldeko Europako eta Latinoamerikako jatorriei buruz ari gara, batez ere.

Antzeko ondorioak atera daitezke Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiaren Barometroaren datuetan oinarrituta, agerian jarri eta berretsi egiten baitute, urtez urte, euskal biztanleek lehen aipatutako jatorriekiko sinpatia txikiagoa eta handiagoa erakusten dutela. Hala, 2019ko Barometroan (Ikuspegi, 2019) euskal biztanleek Magrebtik etorritako pertsonei (Maroko eta Aljeria) 5,0 puntu eman dizkiete sinpatian, jatorri jakin batek lortu duen puntuazio baxuena, hain zuzen. Jarraian, Errumaniatik (5,5 puntu), Pakistanetik/Nepaletik/Bangladeshetik (5,7 puntu) eta Txinatik (6,1 puntu) etorritakoak daude. Afrika beltzetik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen puntuazioa ere ez dago oso urrun (6,2 puntu).

Barometro berean, sailkapen horren beste muturrean Mendebaldeko Europako herrialdeetako pertsonak (6,7 puntu), Argentinakoak (6,5 puntu) eta Paraguaikoak (6,3 puntu) daude.

Integrazioaren asimetria dimentsioetan

Aurreko ataletan, Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoa garatu dugu eta prozesu horretan pertsonen multzo edo segmentuek dituzten posizioetan sakondu dugu, integratzea dimentsio anitzekoa dela konturatzeaz gain. Halaber, ondorioztatu dugu gure datuek honako hau aholkatzen digutela: zazpi dimentsio hartu behar direla kontuan atzerritar jatorriko pertsonen (16 urtetik gorakoak) integrazio sozialaren prozesu globala osatzen duen egituraren azpian.

bestetik, atzerritar pertsonek pertsona autoktonoekin integratzeko zuten gaitasunaz. Dimentsio hori euskal biztanleria osora estrapola daiteke.

4.2 Integrazio asimetrikoa: aldagai iragarleak atalean zirriborratutako integrazio sozialaren prozesuari buruzko lehen zantzu batzuek agerian utzi dute, batetik, prozesu hori desberdina izan daitekeela pertsona zein pertsona-talde batzuen eta besteen artean, eta bestetik, asimetrikoa ere izan daitekeela integrazio sozial globala osatzen duten dimentsioetan. Argi geratu da hori pertsonen jatorriko eskualdea jasotzen duen aldagaia eta pertsona horiek zazpi dimentsioen integrazioan (lana, ongizatea, alderdi sozioekonomikoa, identitatea, herritartasuna, komunitatea eta itxaropenak) duten posizioa gurutzatu ditugunean.

Alabaina, gurutzaketa horren oinarrian jatorri bereko pertsona guztiek osotasun homogeneo bat osatzen dutela dago, eta badakigu hori ez dela egia, beste faktore batzuek ere eragiten baitute adierazitako dimentsioen integrazio handiagoan edo txikiagoan. Gainera, integrazio sozialaren indize sintetikoa garatzeko egindako lanari esker, badakigu zer posizio duen pertsona bakoitzak integrazio-indize partzialetako bakoitzean, adierazitako zazpi dimentsioei dagozkien haietan, alegia.

Orain, beste planteamendu metodologiko bat ezartzen saiatuko gara. Gure asmoa integrazio-zailtasun objektibo handienak dituzten pertsona-multzoetan edo -konglomeratuetan sakontzea da; hots, zaurgarritasun- eta esklusio-arrisku handiena dutenetan. Horretarako, beste azterketa estatistiko bat egin dugu, datuak argitzen lagundu diezagun eta orain arte nabarmendutako aurkikuntzak baiezta diezazkigun.

Horrenbestez, EAEko 16 urtetik gorako pertsonek zazpi dimentsioetan dituzten balioak aukeratu ditugu eta aldagai anitzeko bi sailkapen-teknika kateatu aplikatu dizkiegu. Hasteko, konglomeratuen kluster-analisi hierarkiko bat[24] aplikatu dugu, eta, jarraian, aurretiazko azterketatik ateratako hipotesietan oinarrituta, K-batezbestekoak[25] motako konglomeratuen zenbait analisi ez-hierarkiko

[24] Kluster-analisiaren teknika aldagai anitzeko sailkapen-teknika bat da, interdependentzia-tekniken familiakoa. Osotasun bat eratzen duten aldagai multzo handi bati aplikatzen zaion teknika bat da, pertsonen azpimultzoak edo konglomeratuak (kasuak) ezartzeko; helburua da kluster bereko kideak ahalik antzekoenak izatea, ezaugarriak edo bereizgarriak partekatzea (antzeko balioak aztertutako aldagaietan) eta, aldi berean, ateratzen diren konglomeratuak ahalik desberdinenak izatea, aldeak egotea haien artean (balio desberdinak aztertutako aldagaietan). Bisquerraren (1989) lanaren bi liburukietan dago aldagai anitzeko teknika honen oso azalpen erraza.

[25] K-batezbestekoak teknika aldagai anitzeko sailkapen-teknika bat da, interdependentzia-tekniken familiakoa. Osotasun bat eratzen duten aldagai multzo handi bati aplikatzen zaion teknika bat da, pertsonen azpimultzoak edo konglomeratuak (kasuak) ezartzeko; helburua da kluster bereko kideak ahalik antzekoenak izatea, ezaugarriak edo bereizgarriak partekatzea (antzeko balioak aztertutako aldagaietan) eta, aldi berean, ateratzen diren konglomeratuak ahalik desberdinenak izatea, aldeak egotea haien artean (balio desberdinak aztertutako aldagaietan). Beraz, orain artekoan bat dator kluster-analisiarekin. Dena dela, ikerketarako egoera metodologikoa eta helburuak berdinak izan arren, funtsezko desberdintasun bat dago kluster-analisiarekiko: izan ere, kluster-analisiak ez du, *a priori*, inolako hipotesirik behar ezarri beharreko konglomeratu kopuruari buruz; K-batezbestekoak teknikak, berriz, atera behar den konglomeratu kopuruari buruzko aurretiazko hipotesi bat behar du, aplikatu dadin. Nolanahi ere, sailkapen-irizpide desberdinak dituzten bi teknika dira, eta

aplikatu ditugu integrazio-prozesuaren zazpi dimentsioetan desberdintasunak dituzten (hau da, alde esanguratsuak integrazioaren zazpi indize partzialetan) atzerritar jatorriko pertsonen lau, bost edo sei konglomeraturen eraketaren hipotesien gainean.

Kluster eta K-batezbestekoak motako azterketek emandako aukerak aztertu ondoren, pertsonen bost konglomeraturekin lan egitea erabaki dugu. Sailkapen hori da onena, baldin konglomeratu bakoitzean integrazio-prozesuko zazpi dimentsioetan antzeko ezaugarriak dituzten pertsonak multzokatu nahi badira, lortutako konglomeratuak bereiztearekin batera[26].

Azken sailkapena 16. taulan ageri da. Taula horretan, pertsonen integrazioaren zazpi dimentsio partzialak ikusten dira, bai eta ateratako bost konglomeratuetako bakoitzak dimentsio horietan dituen balioak ere.

16. taularen asmoa, bestalde, honako hau da: taula bateko zenbakizko datuak grafiko bateko koloreekin lotzea. Kasu honetan, bost zutabe ikusten dira, eta bakoitzari atera diren pertsonen konglomeratuetako bat dagokio. Eta ilarak, berriz, integrazio sozialaren indize partzialei edo zazpi dimentsioei dagozkie: lan-munduan, ongizatean, alderdi sozioekonomikoan, identitatean, herritartasunean, komunitatean eta itxaropenetan integratzeko dimentsioei, alegia. Koloreek adierazten digute nolakoa den konglomeratu baten balioa: oso balio erlatibo altua (kolore berde bizia), altua (berde argia), ertaina (laranja kolorea), baxua (more argia) edo oso baxua (more iluna).

Konglomeratuen izenek, multzo bakoitzaren edukiaz eta ezaugarriez gain, integrazioaren dimentsioetan duten posizioa adierazteko balio nahi dute. Hona hemen konglomeratuen deskribapen zehatzagoa:

1. *Integratuta alderdi guztietan*: azpimultzo hau aztertutako zazpi dimentsioetatik gehienetan integrazio-posizio erlatibo onenak dituzten pertsonez osatuta dago. Egia da beste konglomeratu batean hobeak direla lan-munduko ongizatea eta ongizate materiala, baina talde hau osatzen dutenak integratu

ikerketa-egoera berean oinarrituta, bi hurbilpen edo ikuspegi osagarri eman ditzakete. Bisquerraren (1989) lanaren bi liburukietan dago aldagai anitzeko teknika honen oso azalpen erraza.

[26]Kluster-analisiaren aglomerazio-historialaren analisiak (analisi horren koefizienteen balioen bilakaeran) eta dagokion dendogramaren analisiak bost azpitaldetan multzokatzea onargarria dela pentsatzera gonbidatzen gaituzte, nahiz eta ez dugun baztertzen atzerritar jatorriko pertsonen multzoa lau edo sei azpitaldetan taldekatzea. Analisi honetarako, Ward Metodoaren konglomerazio-metodoarekin egin dugu lan, eta erabilitako unitatea distantzia euklidearraren karratua izan da. Hiru K-batezbesteko motako analisik emandako datuek (lehena lau konglomeraturen emaitza batekin, bigarrena bost konglomeraturen emaitza batekin eta hirugarrena segi konglomeraturen emaitza batekin) bost konglomeraturen emaitzarekin lan egiteko aholkatu digute, ondoen betetzen baititu talde barneko homogeneotasunaren eta talde arteko heterogeneotasunaren betekizunak (esleitzen zaizkien konglomeratuen zentroekiko banakoen distantzien eta azken konglomeratuen zentroen arteko distantzien alderaketa).

dira ondoen sinboloetan, identitatean, herritartasunean eta komunitatean, eta, gainera, integrazio altua dute etorkizuneko euskal gizartean.

16. taula. Pertsonen konglomeratuak, integrazioaren zazpi dimentsioetan duten posizioaren arabera

Integratzearen indize partziala...	Oso ondo doakit, neure erara	Gaizki, oso gogorra izaten ari da	Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua	Lana izan ezik, ez doakit gaizki	Integratuta alderdi guztietan
Lan-munduan	0,53281	-0,53218	0,18043	-1,83500	0,20822
Ongizatean	0,39227	-2,11920	0,26338	0,30493	0,26477
Sozioekonomikoa	0,37516	-1,39479	-0,15740	-0,20550	0,51675
Identitarioa	0,27215	-0,49412	-0,77203	-0,14529	0,48082
Herritartasunean	0,05518	-0,40172	-0,35875	-0,19434	0,93997
Komunitarioa	-0,36880	-0,01525	-0,14385	-0,19025	2,15939
Itxaropenetan	0,31522	0,06217	-1,82542	0,26227	0,32009

Iturria: txostengileak egina

2. *Oso ondo doakit, neure erara*: funtsezko desberdintasun bat dago konglomeratu hau eta aurrekoa osatzen dutenen artean. Lehen konglomeratuan oreka garrantzitsua ikusten da aztertutako dimentsio guztien erritmoetan eta aurrerapenetan; bigarren honetan, berriz, asimetria argia dago: alde batetik, integrazio materiala (lana, ongizatea, alderdi sozioekonomikoa) eta identitarioa daude; bestetik, herritartasunean eta komunitatean lortutako integrazioa. Pertsona-talde honi oso ondo doakio integrazio-prozesuaren alderdi materialean, baina ez du ematen interes edo gaitasun handirik duenik moldatzeko eskubideak baliatzeko ahalmen osoa izatearekin eta komunitatean parte hartzeko zein elkarreraginerako ahalmenarekin zerikusia duten integrazio-prozesuetan. Konglomeratu honen integrazio-dinamikaren izaera, aukeratuta edo aukeratu gabe, kulturaniztunean oinarritzen da: baldintza ekonomiko egokietan biziko naiz gizarte honetako kideekin, baina ez dut haiekin bizikidetzarik izango interakzioaren eta herritartasunaren ikuspegitik.

3. *Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua*: konglomeratu honetan lortutako balioek adierazten digute asimetria handia dagoela integrazio-prozesuetan. Posizio eta aurrerapen nabarmenak dituzte alderdi materialetan (lan-munduan eta ongizatean integratzean, batez ere), nahiz eta ez duten posizio ekonomiko sendoa; baina askoz gehiago dute egiteko identitatean, herritartasunean eta komunitatean integratzeko prozesuan, bai eta etorkizuneko itxaropenetan ere; horrek pentsarazten digu haien egoera urrun dagoela alderdi positiboek negatiboek baino garrantzi handiagoa izatetik. Adierazleek erakusten dutenez, pertsona-talde horri ez doakio gaizki

zenbait dimentsiotan, baina oraindik goiz da oraingo eta etorkizuneko euskal gizarteko kide bihurtzea barneratzen ari direla pentsatzeko.

4. *Lana izan ezik, ez doakit gaizki*: pertsonen konglomeratu honetako posizioek adierazten digute lan-munduan integratu ez izana dela haien gabezia handiena. Multzo honek posizio interesgarriak ditu zenbait dimentsiotan, hala nola integrazio identitarioan (asko du hobetzeko, hala ere), integrazio komunitarioan eta etorkizuneko itxaropenekin lotutakoan; horrek esan nahi du aurrerapenak egin dituela integrazio-sentimendu subjektiboan (euskal gizarteko kide sentitzean, gizarte horretan gustura egotean eta haren etorkizunean parte hartu nahi izatean). Baina lan-munduan integrazio eskasa izatea oztopoa da, eta oztopo hori asko hobetu daitekeen integrazio sozioekonomiko batekin lotuta dago, eragina baitu bigarren integrazio mota horretan.

5. *Gaizki, oso gogorra izaten ari da*: konglomeratu honetako ia dimentsio guztien balioek adierazten digute multzo horretako kideak integrazio-posizio oso goiztiarretan daudela oraindik. Bai integrazio materialean, bai identitatean zein herritar-eskubideetan integratzean, posizioek adierazten digute oso egoera pertsonal eta familiar gogorrak dituztela. Ematen duenez, dimentsio komunitarioan eta etorkizuneko dimentsioan soilik dituzte posizio itxaropentsuak: konglomeratu honen gaur egungo egoerak panorama iluna eta gogorra erakusten du, eta laguntza komunitarioa eta etorkizun hobea izateko itxaropena dira, agian, egoera horretan daudenen sostengua.

Bost konglomeratuetako bakoitzari lagin osoa esleitzea ikuspegi estatistikotik onargarria dela ziurtatzeko, aldagai anitzeko beste analisi bat, analisi bereizlea[27], aplikatu dugu. Aldagai anitzeko teknika horri esker, ikus dezakegu ea zuzena den atzerritar jatorriko pertsonak talde batean edo bestean sartzean egindako esleipena. Ez gara luzatuko analisi bereizle horren emaitzen interpretazioan; gure helburuetarako, nahikoa da esatea analisiak baieztatu egin duela

[27] Analisi bereizlea aldagai anitzeko mendekotasun-teknika bat da, eta teknika horren helburu nagusia da eredu iragarle bat eraikitzea eta jokabideen kalkuluak egitea, kategoria bati edo besteari mendeko aldagaia esleituz, funtzio bereizleak osatzen dituzten aldagai independenteen balioen arabera. Sailkapen-teknikatzat har daitekeela ere esaten da, adierazi dugunagatik. Teknika hori aplikatu izanaren helburu espezifikoa hau da: egiaztatzea egin dugun esleipena (2.418 pertsona bost konglomeratutan jartzea) onargarria dela eta baldintza estatistikoak betetzen dituela. Gure kasuan, analisi bereizlea aplikatuta, 0.267 eta 0.861 arteko Wilks-en lambda balioa lortu dugu aztertutako zazpi dimentsioetan, eta guztien esangura-maila 0.000 izan da; horrek adierazten digu desberdintasun esanguratsuak daudela bost konglomeratuen batezbestekoetan zazpi dimentsioetarako. Boxen M testaren probak (balioa, 1.875; esangura, 0.000) adierazten digu alde nabarmenak daudela talde bakoitzeko bariantza- eta kobariantza-matrizeen artean. Analisitik lau funtzio bereizle lortu ditugu, eta guztizko bariantzaren % 40,8, %25,2, %20,9 eta %13,0 azaltzen dute, hurrenez hurren. Funtzioetako Wilksen lambda balioak guztiz esanguratsuak dira (0.000 esangura). Eta baliozkotze gurutzatuak jatorrizko kasuen % 93,2 ondo sailkatuta dagoela adierazten du, eta baliozkotze gurutzatuaren bidez balioztatutako kasu multzokatuen % 93. Teknika honen oinarriak ulertzeko eta ikasteko eskuliburu erraz bat Mª Ángeles Cea D´Anconak (2016) egindakoa da.

pertsona horiek zuzen sailkatu zirela bost konglomeratuetan; izan ere, zuzen esleituta geratu dira jatorrizko kasu multzokatuen % 93,2 eta baliozkotze gurutzatuaren bidez balioztatutako kasu multzokatuen % 93. 5. grafikoan ikusten da bost konglomeratuen lurralde-mapa, botere bereizle handiena duten bi funtzioekiko.

5. grafikoa. Bost konglomeratuen lurralde-mapa, 1. eta 2. funtzioekiko



Iturria: txostengileak egina

Ezarritako bost konglomeratuek posizio bereziak eta bitxiak dituzte adierazitako zazpi dimentsioetan, eta posizio global desberdina ere bai integrazio sozialaren prozesuan. Konglomeratu batekoa edo bestekoa izatea Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoarekin gurutzatzen badugu, egiaztatuko dugu konglomeratu bakoitzak lortzen dituen batez besteko puntuazioen artean desberdintasun esan-

guratsuak daudela; hau da, erakusten dute euskal gizartean integratzeko fase edo posizio desberdinetan daudela.

6. grafikoak erakusten du nolakoa den ezarritako bost konglomeratuen posizio orokorra indize sintetikoarekin sortutako aldagaian. Grafiko horretan ikusten denez, lehen konglomeratuaren posizio erlatiboak gainerako konglomeratuek baino aurrerapen askoz handiagoa du. Azpimultzoetako bigarrena soilik hurbiltzen zaio, eta azken horren posizio erlatiboak ere erakusten du konglomeratu horretako kideek aurrerapen garrantzitsuak egin dituztela integrazio sozial globalaren prozesuan. Gainerako hiru konglomeratuen posizioak askoz urrunago daude beste biengandik; horrek esan nahi du haien integrazio sozialaren posizio erlatiboaren fasea askoz ere goiztiarragoa dela.

6. grafikoa. Bost konglomeratuen Integrazioaren Sozialaren Indize Sintetikoa



Iturria: txostengileak egina

Konglomeratu horien tamaina ere ez da uniformea: lehenago, aurreko atalean mendekotasun-egoera batean oinarritutako tipologiekin (integrazio sozial globalean duten puntuazioaren araberako segmentuak) lan egin dugunean, ikusi dugun bezala, hemen ere kuantifika daiteke zenbat pertsonaz osatuta dagoen bost konglomeratuetako bakoitza.

Behin lagineko kopuruetatik EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen gutxi gorabeherako kopuruetara pasatzeko orokortzaileak aplikatuta daudenean, ikusten dugu, 7. grafikoan ageri den bezala, multzo ugarienaren integrazio-egoera orokorra *Oso ondo doakit, neure erara* esaldiaren bidez defini dezakegula; izan ere, ikusi dugun moduan, haien posizioak fase aurreratuan daude integrazio materialean, baina gabeziak dituzte herritartasunaren eta alderdi komunitarioaren integrazioan. Kalkulatzen dugu konglomeratu hori 79.410 pertsonak osatzen dutela, eta hori EAEn bizi diren 16 urtetik gorako guztizko biztanleriaren % 48,1 da.

Kolektibo horri *Integratuta alderdi guztietan* definitu dugun hura (dimentsio guztietan balio garrantzitsuak dituelako du izen hori) osatzen duten haiek (18.508 pertsona direla kalkulatzen dugu, guztizko biztanleriaren % 11,2) gehitzen ba-

dizkiogu, bi konglomeratu horietan EAEn bizi den atzerritar jatorriko biztanleriaren ia % 60 biltzen da.

Integrazio-prozesu materialetan (lana, ongizatea, alderdi sozioekonomikoa) ez besteetan (identitatea, herritartasuna, itxaropenak) gabeziak dituelako *Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua* izena eman diogun konglomeratuak 19.948 pertsona inguru biltzen dituela kalkulatzen dugu; hau da, aztertutako biztanleriaren % 12,1.

7. grafikoa. Bost konglomeratuen tamaina



Iturria: txostengileek egina

Lana izan ezik, ez doakit gaizki izena eman diogun konglomeratua 22.283ren bat pertsonak osatuta dagoela kalkulatzen dugu; hau da, aztertutako guztizko unibertsoaren % 13,5ek. Gogora dezagun konglomeratu horretakoak dimentsio guztietan daudela posizio aurreratuan edo egonkortuan, lanaren dimentsioan izan ezik (ez da ahaztu behar faktore hori dela garrantzitsuena); hau da, gabezia handiak dituzte lan-egoera eta -baldintzak jasotzen dituen dimentsioan.

Azkenik, posizio erlatibo okerrena duen konglomeratua geratzen zaigu. Konglomeratu hori integrazio-fase goiztiarrenetan dago aztertutako dimentsioetan, eta *Gaizki, oso gogorra izaten ari da* izena eman diogu; izan ere, gabezia garrantzitsuak ditu bai integrazio materialean, bai unibertso sinbolikoaren eta itxaropenen integrazioan. Kalkulatzen dugu konglomeratu hori 25.005 pertsonaz osatuta dagoela, Euskadin bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen % 15,1ez.

Egiazta dezakegun bezala, era batera zein bestera begiratuta ere, dela Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoaren arabera aztertutako biztanleriaren segmentazioa egin eta 25 mota edo segmentu lortuta, dela indize sintetiko globalak oinarrian dituen zazpi dimentsio edo indize partzialekin lan egin eta bost konglomeratu lortuta integrazio-erritmo asimetrikoekin, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko 16 urtetik gorako biztanleen % 15-16 inguru da (25.000 pertsona inguru) egoera

erlatibo txarrenean dauden eta dimentsio anitzeko prozesuetan defizit[28] handiak dituzten pertsonen ehunekoa.

Demagun atal honetan bereizten ari garen bost konglomeratu horietako kide izatea lau aldagai garrantzitsurekin gurutzatzen dugula, konglomeratu horietako bakoitzak eguneroko zer egoerari eta errealitateri aurre egin behar dien agerian uzte aldera; berriro ere ikusiko dugu konglomeratu horien egoerak oso desberdinak direla. Bost konglomeratuak gurutzatu ditugu *zailtasun ekonomikoak, gabezia-egoera larriak, bizi diren etxebizitzaren egoera eta aberastasun edo pobrezia familiar subjektiboa* aldagaiekin, eta egiaztatu dugu lotura estatistiko esanguratsua dagoela (Chi Square esanguratsua lau kasuetan: 0.000) konglomeratu batekoa edo bestekoa izatearen eta zailtasun ekonomiko gehiago edo gutxiago izatearen, gabezia-egoerak jasatearen edo ez jasatearen, egoera hobean edo txarragoan dagoen etxebizitza batean bizitzearen eta familia aberatsa edo pobrea izatearen artean.

17. Bost konglomeratuen zailtasun ekonomikoak (%)

Zailtasun ekonomikoak	Gaizki, oso gogorra…	Lana gaizki, gainerakoa…	Ondo, baina ez dut…	Oso ondo, neure…	Integratuta alderdi…	Guztira
Premietarako (elikadura, jantzi-oinetakoak eta etxebizitza)	98,5	14,5	14,6	6,6	14,1	22,3
Ustekabeko gastuei aurre egiteko	1,5	46,6	42,4	32,6	17,6	29,7
Zailtasunik gabe	0,0	38,9	43,0	60,7	68,4	48,0
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

17. taula oso adierazgarria da: egoera erlatibo onenean dauden bi konglomeratuetako gehienek zailtasun ekonomikorik ez dutela adierazi dute. Beste muturrean, egoera okerrenean dagoen azpimultzoa osatzen duten ia guztiek adierazi dute zailtasun ekonomikoak dituztela.

[28] Konglomeratuetako batek bere dimentsioetako batean gabeziak dituela esaten dugunean, ez dugu ulertarazi nahi guztiek garrantzi eta munta bera dutela, ez eta integrazio sozialari bere osotasunean berdin eragiten diotela ere. Besterik gabe, agerian jarri nahi dugu pertsona-kolektibo batzuek asko dutela oraindik hobetzeko beren dimentsioen integrazio partzialean zein integrazio sozial globalean.

18. taula. Bost konglomeratuen gabezia-egoera larriak (%)

Gabezia-egoera larriak	Gaizki, oso gogorra…	Lana gaizki, gainerakoa…	Ondo, baina ez dut…	Oso ondo, neure…	Integratuta alderdi…	Guztira
Dimentsio anitzekoa, oinarrizko alderdiak	78,7	6,1	6,5	3,4	8,6	15,2
Partziala, oinarrizko alderdietan	21,3	27,0	27,5	19,9	24,6	22,5
Gabeziarik ez edo ez-larriak	0,0	66,9	66,0	76,7	66,8	62,3
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

Gabezia-egoera larriei dagokienez (18. taula), berriro ere *Gaizki, oso gogorra…* multzoko gehienek, egoera txarrenean daudenek, adierazi dute gabezia-egoera gogorrak jasaten ari direla oinarrizko alderdietan eta dimentsio askotan. Gainerako konglomeratuen egoera erlatiboa askoz hobea da zaurgarritasunari dagokionez.

19. taula. Etxebizitzaren egoera bost konglomeratuetan (%)

Etxebizitzaren egoera	Gaizki, oso gogorra…	Lana gaizki, gainerakoa…	Ondo, baina ez dut…	Oso ondo, neure…	Integratuta alderdi…	Guztira
Ez, ez da nahikoa	14,5	5,5	3,6	1,7	3,9	4,5
Maila onargarria du, baina hobetu daiteke	48,5	38,9	42,5	29,8	28,5	35,1
Bai, maila egokia du	37,0	55,6	53,9	68,4	67,6	60,4
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

Etxebizitzaren egoerari erreferentzia egiten dion aldagaiaren azterketak (19. taula) adierazten digunez, bost konglomeratuetako bat bera ere ez da bizi gutxienekoak betetzen ez dituzten etxebizitzetan edo azpiegituretan. Egoera okerrenean dagoen multzoko pertsonen artean ere, gehien-gehienek onartzen dute maila onargarria edo egokia duen etxebizitza batean bizi direla. Baina gurutzaketak nabarmen uzten du, halaber, integrazioaren zazpi dimentsioetan posizio onenak dituzten konglomeratuak (hau da, *Integratuta alderdi guztietan* eta *Oso ondo doakit, neure erara* etiketak dituztenak) daudela osatuta maila egokia duten etxebizitzetan bizi direla adierazten duten pertsonez.

20. taula. Bost konglomeratuen aberastasun edo pobrezia familiar subjektiboa (%)

Pobrezia-Aberastasuna	Gaizki, oso gogorra…	Lana gaizki, gainerakoa…	Ondo, baina ez dut…	Oso ondo, neure…	Integratuta alderdi…	Guztira
Oso pobrea	10,9	0,6	1,9	0,1	0,4	1,9
Pobrea	25,7	4,5	7,8	2,3	3,5	6,7
Pobre samarra	25,4	8,7	8,7	3,3	4,3	7,9
Moldatuz, batezbestekoaren azpitik	37,0	57,9	60,5	49,3	40,6	49,2
Batezbestekoaren gainetik, eroso	0,9	23,5	19,7	38,4	39,8	29,0
Oparoa, aberatsa, diruduna	0,0	4,8	1,3	6,6	11,3	5,3
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: txostengileak egina

Azkenik, azken gurutzaketaren analisiak (20. taula) azken ebidentzia bat uzten digu agerian: zazpi dimentsio partzialetan integrazio-egoera erlatibo onenean dauden konglomeratuek besteek baino askoz nabarmenago dituzte beren buruak eta beren familiak oparotzat, aberastzat, erosotzat edo batez bestekoaren gainekotzat. Zaurgarritasun handieneko egoeran dagoen konglomeratukoak, berriz, familia pobrekoak edo oso pobrekoak direla adierazteagatik nabarmentzen dira. Tartean, beste bi konglomeratuek egokiago ikusten dute beren burua moldatzen diren edo batezbestekoaren azpitik dauden familia gisa.

Azkenik, galdera bati erantzutea geratzen zaigu: izaera soziodemografikoko aldagaiekin ere lotuta al dago egin dugun sailkapena, hau da, integrazio globalean eta integrazioaren zazpi dimentsioetan integrazio-erritmo asimetrikoak dituzten pertsonen konglomeratuena? Jarraian ikusiko dugu.

Aldagai soziodemografikoak eta bereizten ari garen bost konglomeratuetako bateko edo besteko kide izatea gurutzatzen ditugunean, ikusten dugu konglomeratuek lotura esanguratsua dutela EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen jatorriko eskualdearekin, nazionalitatearekin, administrazio-egoerarekin, sexuarekin, adinarekin, egoera zibilarekin, ikasketa mailarekin, jarduerarekin, Espainian daramatzaten urteekin, erroldatuta daramaten denborarekin eta minoria batekoak izatearekin edo ez izatearekin (lortutako *Chi Square* guztiak dira esanguratsuak. Esangura: 0.000).

Zenbait ezaugarritan bat datozen zenbait konglomeratu dauden arren, ezarritako bost konglomeratuetako bakoitzaren profil soziodemografiko bereziaren ezaugarriak ezar ditzakegu. Aldagaien gurutzaketaren bidez lortutako informazioa laburtzeko, korrespondentzia sinpleen faktore-analisia (AFCS) aplikatu

diegu aipatutako aldagaiei[29]. 8. grafikoan ikusten da AFCS horren emaitza, bai eta bost konglomeratuen posizioaren eta 1. eta 2. dimentsioez osatutako plano faktorialean ondo adierazitako ezaugarrien mapa ere. Ez gara luzatuko azterketa[30] horren interpretazioan, gure asmoa informazioa laburtzea eta konglomeratuetako bakoitzaren ezaugarriak erakustea baita. Hau da haietako bakoitzaren deskribapena:

1. *Integratuta alderdi guztietan*. Hauek dira azpimultzo honen ezaugarriak: Mendebaldeko EBn, Argentinan/Txilen/Uruguain, Kolonbian/Ekuadorren/Perun eta Brasilen/Venezuelan/Dominikar Errepublikan jatorria duten pertsonak dira, funtsean; gehienek dute Espainiako nazionalitatea, eta pertsona landunak eta 25etik 44 urtera bitartekoak dira, batez ere, baina 45etik 64ra bitartekoak ere badaude; 10 urte baino gehiago daramatzate Espainian, unibertsitateko edo bigarren mailako ikasketak dituzte, 10 urtez edo bost urtez baino gehiagoz daude erroldatuta eta ez dira inolako minoria etniko, kultural edo erlijiosotako kide.

2. *Oso ondo doakit, neure erara*. Aurrekoan bezala, konglomeratu honetako pertsona gehienek Mendebaldeko EBn, Argentinan/Txilen/Uruguain, Kolonbian/Ekuadorren/Perun eta Brasilen/Venezuelan/Dominikar Errepublikan dute jatorria; pertsona landun ezkonduak dira hauetako gehienak, 25etik 44ra edo 45etik 64ra bitartekoak, eta 10 urte baino gehiago daude erroldatuta, bizileku-baimen iraunkorra dute, eta nazionalizatuta daudenak ere badaude; bigarren mailako edo derrigorrezko ikasketak dituzte, gehienek atzerritar nazionalitatea dute, eta hauek ere ez dira inolako minoriatako kide.

[29] Korrespondentzia sinpleen faktore-analisia interdependentzia-tekniken familiako aldagai anitzeko teknika bat da. Helburutzat datuak laburtzea duen teknika faktorial bat da. Zentzuzkoa da teknika hori aplikatzea aurrean dugun ikerketa-egoeran elkarrekiko interdependentzia-egoeran dauden aldagai nominalen multzo handi bat dagoenean eta haien kategorien arteko loturak jakin nahi ditugunean. Gure kasuan, aldagai nominal edo kategoria-aldagai bat dugu (bost konglomeratuetako bateko kide izatea), eta aztertu nahi dugu zer lotura duen kategoria soziodemografikoen aldagai-multzo batekin. Korrespondentzien analisia modu oso errazean eta didaktikoan azaltzen dute Abascal eta Grande (1989) eta Greenacre (2002) autoreen eskuliburuek.

[30] Korrespondentzien analisiaren emaitzek adierazten digute bi dimentsio nahikoa direla guztizko aldagarritasunaren zati garrantzitsu eta nahikoa azaltzeko. Izan ere, lortutako dimentsioen artean, lehenaren berezko balioak soilik du 0,20tik gorako zifra; horrek jakinarazten digu lehen dimentsioak azaltzen duela egiaz guztizko aldagarritasunaren zati garrantzitsu bat (% 68,1). Bigarren dimentsioak % 19,7ko ekarpena baino ez dio egiten azalpenari. Nolanahi ere, bi dimentsioen adierazpen grafikoak (14. grafikoa) guztizko bariantzaren % 87,8 jasotzen du, guztira. Kategoriek 1. dimentsioari egiten dizkioten ekarpen absolutuen analisiak erakusten digu dimentsio horrek aurrez aurre jartzen dituela *Oso ondo doakit, neure erara* profila eta *Lana izan ezik, ez doakit gaizki* eta *Gaizki, oso gogorra izaten ari da* profilekin lan egiten duten pertsonak, zenbait kategoriarekin batera (langabe bihur daitekeena, ez-aktiboa, 16 urtetik 24ra, hiru urte baino gutxiago Espainian eta administrazio-egoera irregularra).
Emaitza grafikotik adierazpen-kalitate baxua zuten kategoriak kendu ditugu (0.40 baino ekarpen erlatibo txikiagoa bi dimentsioetan). Emaitza grafikoan adierazi direnek nahikoa irudikapen-kalitate dute gertutasunaren eta urruntasunaren arabera interpreta daitezen, bai eta hurbiltasun-lainoak eratzeko ere.

8. grafikoa. Korrespondentzia sinpleen analisia: bost konglomeratuen ezaugarriak



Iturria: txostengileak egina

3. *Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua*. Ezaugarri hauek dituzte konglomeratu hau osatzen dutenek: behar lukeena baino gehiago jasotzen ditu ausaz zenbait jatorritako pertsonak (Txina, Paraguai, Senegal); atzerritar jatorriko pertsonak dira gehienak, eta landunak, aurreko konglomeratuetan bezala; 25 urtetik 64ra bitartekoak izanik, 5 urte baino gehiago daramatzate erroldatuta, eta bigarren hezkuntzako eta derrigorrezko ikasketak dituzte; administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra dute eta 10 urte baino gehiago daramatzate Espainian; asko dira minoria erlijioso batekoak.

4. *Lana izan ezik, ez doakit gaizki*. Konglomeratu honetako pertsona gehienek Magreben dute jatorria, emakumeen kopurua beste konglomeratu batzuetan baino dezente handiagoa da, gehienek atzerritar nazionalitatea dute, eta ezkongabeen kopurua garrantzitsua da, gazteagoak baitira (16-24 urte); 5 urte baino gehiago daramatzate erroldatuta, pertsona asko ez-aktiboak dira, bigarren mailako ikasketak eta derrigorrezkoak dituzte eta, administrazio-egoerari dagokionez, bizileku-baimen iraunkorra dute.

5. *Gaizki, oso gogorra izaten ari da*. Konglomeratu honen ezaugarri nabarmenetako bat da jatorriz Magrebko eta Afrikako gainerako herrialdeetakoak (Saharaz hegoaldeko Afrika) diren pertsonak biltzen dituela, batez ere, gehienak atzerritar nazionalitatea dutenak; langabe egon daitezkeen pertsonak dira, ezkongabeen kopurua garrantzitsua da eta 25 urtetik 44ra bitartean dituzte, baina 45etik 64ra ere bai; hiru urte baino gutxiago daramatzate erroldatuta, bigarren mailako ikasketak edo derrigorrezkoak dituzte, eta zenbaitek ikasketarik ez; asko administrazio-egoera irregularrean daude, 5 urte baino gutxiago daramatzate Espainian eta minoria erlijioso bateko pertsonek presentzia garrantzitsua dute.

5 Ondorioak

Orain arte azaldutakotik, zenbait ideia azpimarratu nahi genituzke:

1. 2018ko EABIren datu-baseko informazio ugariari esker, Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoa eraiki ahal izan dugu, eta *Basque Inclusion-Integration Index BI3* deitu diogu; indize horren jokaerak pentsarazten digu nahikoa ondo neurtzen duela EAEn bizi diren 16 urtetik gorako pertsonen gizarte-errealitatea, eta pertsona horien integrazio sozialaren prozesua azaltzen duela.

   Txosten honetan 47 integrazio-adierazle aukeratu dira, baina EABIren datu-baseak gehiagorekin lan egiteko aukera ematen du, edo integrazio soziala neur dezaketen beste aldagai batzuekin ere bai. Pribilegio bat da hain tresna osoa eta kalitate onekoa edukitzea atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozialaren prozesua aztertzeko.

   Beste argitalpen baterako geratzen da bizikidetza-unitateei buruzko datuekin lan egitea, ikerketa honetan lortutako aurkikuntzak sendotzeko eta integrazioaren familia-adierazleekin osatzeko.

2. Atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozialaren oinarrian dauden zazpi dimentsioei dagozkien indize partzialekin eta indize sintetikoarekin lan egin izanari esker, integrazioa honako hau dela ulertu eta defenda dezakegu: dimentsio anitzeko sistema bat, elkarri eragiten dioten eta elkarrekin lotuta dauden zazpi dimentsioz edo artefaktuz osatuta dagoena.

   Garrantzi handiena duenetik txikiena duenera, hauek dira zazpi dimentsio partzialak: lan-munduan integratzea (lan-baldintzak ere sartzen dira), gizarte-ongizatean integratzea (bizi-baldintzetan ere bai), integrazio sozioekonomikoa (bizimodu duina bermatzen duten diru-sarrerak izatea), integrazio

identitarioa (iritzi subjektiboa, beste kolektibo batzuei buruzko balorazioa, diskriminazioa), herritartasunean integratzea (administrazio-egoera, eta herritar-eskubideak eskuratzea), integrazio komunitarioa (eta beste pertsona eta kolektibo batzuekin era askotako entitateetan duten parte-hartze maila) eta itxaropenen bidez adierazten den integrazioa.

3. 2018ko EABIk eskaintzen dizkigun datuen eta lortutako indizeen azterketari esker, ondoriozta dezakegu atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozial globalaren erritmoa desberdina dela pertsonen eta/edo pertsona-taldeen arabera.

   Badaude, halaber, zenbait aldagai soziodemografiko lotura dutenak integrazio sozial globalaren zein aipatu ditugun integrazio sozialaren zazpi dimentsioetako bakoitzaren posizio aurreratuenekin eta goiztiarrenekin. Jarduerak bereizten du gehien (pertsona landunak, langabe egon daitezkeenak eta ez-aktiboak), eta horrek argi azpimarratzen du lana eta lanean txertatzea direla integrazio sozialaren prozesuan sartzeko ate eta eragile garrantzitsuenak.

4. Halaber, datuek adierazten digute pertsona eta/edo talde berak posizio asimetrikoak izan ditzakeela integrazio sozialaren prozesu globalaren oinarrian dauden dimentsioetan, prozesuak orekarako joera izanda ere amaieran.

   Posizio asimetriko horiek ñabardurak jartzen dizkiote Bosswick eta Heckmann soziologoen proposamenari; bi autore horien ustez, oreka egon beharko luke integrazioa osatzen duten dimentsioen arteko interakzioetan. Ematen du baieztapen horrek adierazi nahi digula integrazioak azken emaitza bakarra duela; hau da, prozesu guztiek (asimetrikoak garapenean) integrazio sozial izeneko emaitza bera ekarri behar dutela.

   Agian, errealitateak berak gonbidatzen gaitu pentsatzera integrazio soziala era askotara uler daitekeela eta prozesuek (asimetrikoak garapenean eta erritmoan) ez dutela zertan integrazio sozialaren modu bakar batean orekatuta amaitu. Agian, integrazio sozialak askotariko emaitzak izan ditzakeela hasi beharko dugu pentsatzen, desberdinak atzerritar jatorriko pertsonen eta/edo pertsona-taldeen arabera, eta ez dutela, nahitaez, multzo osoaren oreka behar. Beharbada, talde barneko segmentazioa, dimentsio anitzeko asimetria eta askotariko integrazioa ezaugarritzat dituen integrazio sozialaren teoria bat hasi beharko genuke irudikatzen.

   Euskal herritar sentitzeko moduak asko eta askotarikoak dira biztanleria autoktonoaren artean. Are ugariagoak izango dira atzerritar jatorriko pertsonak guztiz bertakotzen direnean. Baina guztiak egokitzen dira orain dela hamarkada batzuk aita Joxe Migel Barandiaranek, elkarrizketa batean, euskal herritarra zer zen galdetu ziotenean ('Zer da euskaldun izatea?') eman

zuen definiziora. Humanista eta zientzialari haren ustez, hau zen euskal herritarra izatea: Euskal Herrian bizitzea, hemen lan egitea, hemen ikastea, hemen hastea, lur hau maitatzea, euskara hitz egitea, euskara maitatzea, tradizio batzuk, ohitura batzuk eta bizitzeko modu batzuk partekatzea, seme-alabak hemen izatea, gizarte-proiektu komun bateko kide izatea… Era askotara izan eta senti daiteke pertsona bat euskal herritar.

Biztanle autoktonoen artean, beraz, era asko daude euskal herritar sentitzeko eta izateko; era berean, uste dugu askotarikoak izan daitezkeela atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozialak hartzen dituen azken moduak.

5. Zazpi dimentsioen indize partzialetatik eta Integrazio Sozialaren Indize Sintetikotik lortutako datuek nahikoa aurkikuntza eman dizkigute, eta sektoreko pertsona adituek atzerritar jatorriko pertsonen eta/edo taldeen integrazio sozialaren prozesu asimetrikoei buruz dituzten intuizioak baieztatu dituzte.

   Horien artean, aditu batzuek aldezten dute integrazio materiala ezinbesteko baldintza dela (*sine qua non*) benetako integrazio sozialaz hitz egin ahal izateko, eta integrazio sinbolikoak, identitarioak, komunitarioak eta kulturalak garrantzi txikiagoa dutela jatorri desberdinetako pertsonen arteko benetako bizikidetza harmoniatsua lortzeko. Jakina, herritartasunean integratzea ezinbestekoa da, baina, beharbada, hasiko beharko dugu pentsatzen atzerritar jatorriko pertsonen nahiz autoktonoen integrazio material arrakastatsua eta partekatua (lan-mundukoa, gizarte-ongizatekoa eta ekonomikoa) eta herritartasun unibertsalean integratzea bateragarriak direla integrazio sinboliko, identitario eta komunitario zatikatu, berezi eta asimetrikoarekin, eta horrek ez dakarrela inolako mehatxurik euskal gizartearen etorkizunerako.

6. Azkenik, datuek behin eta berriz aipatzen diren gizarte-kategoria ezaguneko pertsonetan eta taldeetan jartzen dute zaurgarritasunaren arreta-gunea.

   Egiten dugun segmentazioa egiten dugula, teknika estatistiko hau edo hori erabilita, aldagaien gurutzaketa mota bat edo bestea aplikatuta, ikerketaren egoera bat edo bestea izanik… profil eta ezaugarri berberak ageri dira, baldin integrazio-prozesuaren edo haren oinarrian dauden dimentsioen fase goiztiarrenetan dauden pertsonak eta/edo taldeak bereizi nahi baditugu.

   Arreta jarri behar dugu zailtasun handienak dituzten, oztopo gehien gainditu behar dituzten, aurrera egiteko tresna gutxiago dituzten eta laguntza zertxobait handiagoa behar duten pertsona horiengan. Jatorri afrikarrekoak, gazteak, gure gizartean denbora gutxi daramatenak eta beren prestakuntza-baliabideak dituztenak izan ohi dira etorkin horiek; horrez gain, emakumeak dira sarritan, ez dute ez lanbiderik, ez lortzeko erraztasunik, eta administrazio-egoera irregularrean daude, horrek dakarkien kaltearekin…

2108ko EABIren datuen eta gure segmentazioen arabera, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen % 15 dira, gutxi gorabehera. Hau da, 25.000 pertsona inguru. Ea, bada, txosten honek gizarte-errealitatea hobeto ezagutzeko balio digun eta integrazio sozialaren fase goiztiarrenean dauden kolektiboei zuzendutako politika publikoak diseinatzen eta inplementatzen laguntzen duen, kolektibo horiei integrazio-prozesuan erritmo hobean aurrera jarraitzeko aukera eman diezaieten. Ez dezagun ahaztu pertsona horietako gehienek beren oraingo eta etorkizuneko bizi-proiektuaren ametsa gure artean betetzeko itxaropena dutela.

6 Bibliografia

Abascal, E. eta Grande, I. (1989). *Métodos Multivariantes para la Investigación Comercial. Teoría, aplicaciones y programación BASIC*. Bartzelona: Ariel Economía.

Bisquerra Alzina, R. (1989). *Introducción Conceptual al Análisis Multivariante. Un enfoque informático con los paquetes SPSS-X, BMDP, LISREL y SPAD*. I eta II. lib. Bartzelona: PPU.

Blancas, F. eta Domínguez, M. (2010). Un indicador sintético DEA para la medición de bienestar desde una perspectiva de género. *Revista Investigación Operacional*, 31.lib., 3. zbk., 225-239 orr.

Blancas, F., Contreras, I. eta Ramírez, J.M. (2011). *Construcción de indicadores sintéticos: una aproximación para maximizar la discriminación. XIX Jornadas ASEPUMA, VII Encuentro Internacional*. Valentzia: Anales de ASEPUMA, 19. zbk.:0110

Bosswick, W. eta Heckmann, F. (2006). *Integration of migrants: contribution of local and regional authorities.* Dublin: European Foundation of the Improvement of Living and Working Conditions. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen dago eskuragarri: https://www.researchgate.net/publication/297802930_Integration_of_Migrants_Contribution_of_Local_and_Regional_Authorities

Cea D'Ancona, M.A. (2016). *Análisis discriminante*. Cuadernos Metodológicos, 54. zbk. Madril: CIS Centro de Investigaciones Sociológicas.

Colectivo IOÉ (Pereda, C., Astis, W., De Prada, M.A. y Mateos, E.) (2008). *Barómetro social de España. Análisis del período 1994-2006*. Madril: Traficantes de Sueños.

Conferencia Ministerial Europea sobre Integración (2010). *Declaración de Zaragoza*. Zaragoza: Presidencia española de la Unión Europea, 2010eko apirilaren 15a eta 16a.

Domínguez, M. et al. (2011). Una revisión crítica para la construcción de indicadores sintéticos. *Revista de Métodos Cuantitativos para la Economía y la Empresa*, 2011ko ekaina, 41-70. orr. Universidad Pablo Olavide.

Escobar, L. (2006). Indicadores sintéticos de calidad ambiental: un modelo general para grandes zonas urbanas. *Revista Eure*, XXXII lib., 96. zbk., 73-98 orr. Santiago de Chile.

Escobar, M. (1998). Las aplicaciones del análisis de segmentación: el procedimiento CHAID. *EMPIRIA Revista de Metodología de Ciencias Sociales*, 1. zbk., 1998, 13-49 orr.

Escobar, M. (2007). *El análisis de segmentación: técnicas y aplicaciones de los árboles de clasificación*. Cuadernos Metodológicos 39. Madrid.

European Comission (2004). European handbook of integration of policymakers and practitioners. Brusela: Directorate General, Justice, Freedom and Security.

European Comission (2018). *Integration of immigrants in the European Union*. Special Eurobarometer 469. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: http://ec.europa.eu/commfrontoffice/publicopinion

Eurostat (2011). *Indicators of immigrant integration. A pilot study*. Luxembourg: Publications Office of the European Union. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: https://ec.europa.eu/eurostat/web/products-statistical-working-papers/-/KS-RA-11-009

Eusko Jaurlaritza (2011). *Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI 2010)*. Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza (2015). *Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI 2014)*. Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza (2020). *Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI 2018)*. Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Fernández, M., Moreno, G., Iglesias, J. eta Oleaga, J.A. (2018). El impacto de la crisis sobre el colectivo de origen ecuatoriano en España. *Convergencia, Revista de Ciencias Sociales*. UAEM, 76. zbk., 2018, Universidad Autónoma del Estado de México.

Foessa (2014). *VII. Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*. Madril: Fundación Foessa.

Freeman, G. (1986). *Migration and the political economy of the Welfare State*. Annals of the American Academy of Political and Social Science, 485, 51-63 orr.

Freeman, G. (2004). Immigrant incorporation in Western Democracies. *International Migration Review*, 38, 945-969 orr.

Fullaondo, A. (2017). Hurbilketa teorikoa eta kontzeptuala. *In* J. A. Oleaga. (Arg.), *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak* (9-40 orr.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/Haur_gazteen_aniztasuna_EAE.pdf

Godenau, D., Rinken, S., Martínez de Lizarrondo, A., Moreno, G., Oleaga, J.A. et al. (2014). *La integración de los inmigrantes en España: una propuesta de medición a escala regional*. Madril: Ministerio de Empleo y Seguridad Social.

Greenacre, M. (2002). *The use of Correspondence Analysis in the exploration of health survey data*. Documentos de Trabajo, 5. zbk. Fundación BBVA.

Hair, J.F., Anderson, R.E., Tatham, R.L. eta Black, W.C. (1999). *Análisis Multivariante*. 5ª Edición. Madril: Prentice Hall.

Huddleston, T., Niessen, J. eta Dag Tjaden, J. (2013). *Using EU Indicators of Immigrants Integration. Final report for Directorate-General for Home Affairs*. Migration Policy Group. ESN. European Comission. Brusela.

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia (2019). *B2019ko Barometroa. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak*. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a. Hemen eskuragarri: https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2019/bar_CAE_2019_EUS.pdf

Laparra, M. eta Pérez, B. (koord.) (2008). *La exclusión social en España: un espacio diverso y disperso en intensa transformación*. *In* Fundación FOESSA, VI Informe sobre la exclusión y desarrollo social en España. Conclusiones. Madril: Fundación FOESSA, 53-88 orr.

MIPEX. 2015. *Integration Policy Index 2015*. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: http://mipex.eu/sites/default/files/downloads/files/mipex-2015-book-a5.pdf

Mondejar, J. eta Vargas, M. (2008). *Indicadores sintéticos: una revisión de los métodos de agregación*. Economía, Sociedad y Territorio, VIII lib., 72. zbk., 565-585 orr.

MTAS (2007). *Indicadores de integración de inmigrantes: propuesta para contribuir a la elaboración de un sistema de indicadores comunes de la integración.* Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Dirección General de Integración de los Inmigrantes.

OECD (2012). *Settling In: OECD Indicators of Immigrant Integration 2012*. OECD Publishing. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: https://www.oecd-ilibrary.org/social-issues-migration-health/settling-in-oecd-indicators-of-immigrant-integration-2012_9789264171534-en

OECD (2015). *Settling In: OECD Indicators of Immigrant Integration 2015*. OECD Publishing. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: http://www.oecd.org/els/mig/Indicators-of-Immigrant-Integration-2015.pdf

Oleaga, J.A. (2007). *Estudio sobre la percepción, valores y actitudes de la población donostiarra hacia la inmigración*. Donostia: Donostiako Udala.

Portes, A. y Borocz, J. (1989). Contemporary immigration: theoretical perspectives on its determinants and modes of incorporation. *International Migration Review*, 23, 606-630. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: https://www.semanticscholar.org/paper/Contemporary-immigration%3A-theoretical-perspectives-Portes-Borocz/4d61ee252d2e0799c3d3724a18fe84d2b949373b

Portes, A. (2000). *Teoría de inmigración para un nuevo siglo: problemas y oportunidades*. *In* F. Morente (ed.), Cuadernos Étnicas. Inmigrantes, claves para el futuro inmediato. Jaén: Cruz Roja-Universidad de Jaén, 25-60 orr.

Pérez, F. et al. (2008). *Análisis, diseño y comparación de indicadores sintéticos. XVI Jornadas ASEPUMA, IV Encuentro Internacional*. Rect@ Vol Actas_16 Issue 1:803. Cartagena.

Poza, C. eta Fernández, J.A. (2010). Una aproximación a la construcción de un indicador de la pobreza multidimensional. ¿Cuáles son los focos de riesgo en España? *Revista de métodos cuantitativos para la economía y la empresa* 10: 43-72 orr.

Schierup, C. eta Alund, A. (1986). *Will they still be dancing? Integration and ethnic transformation among yugoslav immigrants in Scandinavia*. Estocolmo: Almqvist y Wiksell International.

Sanjurjo, E. (2005). *Desigualdad y acceso al bienestar. Una aplicación multivariante al caso español*. Linean (Kontsulta: 2020ko apirilaren 29a). Hemen eskuragarri: https://old.aecr.org/web//congresos/2005/ponencias/p162.pdf

Shershneva, J., Fernández, I. eta Oleaga, J.A. (2018). *Principales características de los grandes colectivos de población de origen extranjero en la CAE*. *In*: El proceso de integración del colectivo inmigrante en Euskadi, Moreno, G. (koord.), 13-59 orr. Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Eranskinak

Enpleguaren alorreko aldagaiak:

1. Z61 EAEn lan egitea
2. Z81 Laneko edukiarekiko gogobetetzea
3. Z82 Lanpostuarekiko gogobetetzea
4. Z83 Mailaz igotzeko aukerekiko gogobetetzea
5. Z84 Lan-ordutegiarekiko gogobetetzea
6. Z85 Nagusiekiko harremanarekiko gogobetetzea
7. Z86 Lan-erritmoarekiko gogobetetzea
8. Z87 Lan-baldintza materialekiko gogobetetzea
9. Z88 Lanaren gogortasun-mailarekiko gogobetetzea
10. Z89 Laneko arriskuen mailarekiko gogobetetzea
11. Z90 Laneko estresarekiko gogobetetzea
12. Z91 Laneko soldatarekiko gogobetetzea
13. Z92 Bizimodura egokitzeko moduarekiko gogobetetzea
14. Z124 Lanari buruzko itxaropenak hurrengo 5 urteetan
15. P84 Familiaren hileko diru-sarrerak

Gizarte-ongizatearen aldagaiak:

1. P61 Etxebizitzaren jabetza-erregimena
2. P69 Nahikoa diru-sarrera oinarrizko premietarako
3. P70 Nahikoa diru-sarrera etxeko gastuetarako
4. P71 Ustekabeko gastuei aurre egitea 800€
5. P72 Haragia, arraina… 2 egunean behin jatea
6. P73 Diru-sarreren + % 30 etxebizitzara bideratzea
7. P77 12 hilabete: ordainagiriak ordaindu gabe edo atzerapenekin
8. P78 12 hilabete: argi-mozketak, …
9. P80 12 hilabete: laguntza ekonomikoa familiakoei eskatzea, …

10. P81 12 hilabete: laguntza ekonomikoa erakundeei eskatzea, …
11. P82 12 hilabete: gainzorpetzea
12. P83 12 hilabete: oinarrizko premiei aurre ezin egitea
13. P86 Familiako pobreziaren-aberastasunaren maila
14. P88 Gizarte-zerbitzu publikoen erabilera
15. P90 Gizarte-zerbitzu pribatuen erabilera

Gizarte-harremanetako esparruaren aldagaiak:

1. Z99 Harremanak aisialdian
2. Z100 Aisialdiko elkarteetan parte hartzea
3. Z101 Autoktonoekin integratzeko zailtasunak
4. Z102 Etorkinekin integratzeko zailtasunak
5. Z103 Etorkinen talde informaletan parte hartzea
6. Z104 Etorkinei laguntzeko erakundeetan parte hartzea
7. Z105 Kirol-elkarteetan edo -klubetan parte hartzea
8. Z106 Hezkuntza- eta kultura-taldeetan parte hartzea
9. Z114 Biztanleria autoktonoari buruzko balorazioa
10. Z115 Biztanleria etorkinari buruzko balorazioa
11. Z118 Euskal gizartean integratuta egoteari buruzko sentimendua
12. Z128B Gaztelaniaren ezagutza-maila

Herritartasunaren esparruko aldagaiak:

1. Z111 Hauteskunde autonomikoetan parte hartzea
2. Z112 Udal-hauteskundeetan parte hartzea
3. Z121 Hurrengo 5 urteetarako itxaropenak
4. Z122 Bizi-proiekturako itxaropenak
5. P22 Administrazio-egoera

Segmentazio-zuhaitza eta tipologiak



Iturria: txostengileak egina

ikus pegi

Immigrazioaren Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de Inmigración